



DURANGOKO JAIK / 11



**Durangoko mendi
duatloiak Euskadiko
txapeldunak
erabakiko ditu
zapatu honetan** / 29



**San Faustoko auzo
elkartek eta
Gaztetxeak gonbit
egin dute jaietan
murgiltzeko** / 11-24



**Leire Bilbaok bere
ibilbidearen aitortza
legez jaso du Haur
eta Gazte Literaturako
Espainiako Saria** / 26



ATXONDO MENDIZALEEN TOPAGUNE BIHURTUKO DA ASTEBURUAN

Zapatuan Anboto Kilometro Bertikala lehiatuko dute Arrazolan,
eta domekan Sorginen Lasterketa Axpen.
Mendiari buruzko hainbat berbaldi ere izango da. / 28

Sorginen Lasterketako irudi bat.

ANBOTO.



SCHMIDT
SUKALDEAK ETA ETXETAKO ALTZARIAK

Urriaren 1etik 31ra
URTEURREN ESKAINTZAK

%20KO DESKONTUA
zure altzarietan*

*Eskaintza baldagarria sukaldeko altzariei gutxienez. Irus baldintzak parte hartzen duten dendetan zure Schmidt saltzalearekin.

Aitziber Basauri OTXANDIO

XV. mendetik gaurdaino heldu den gatazka historikoa da Limitadukoa. Otxandioren (Bizkaia) eta Aramaioko Oleta auzoaren (Araba) artean dagoen 565 hektareako lursailak hainbat ika-mika sortu du menderik mende, eta, eztabaida bere testuinguru historikoan ipintzeko, Otxandioko Udalak ikerketa historikoa eskatu zuen. 2018tik 2020ra bitartean, diziplinarteko ikerlan sakona egin zuten. Belen Bengotxea arkeologo eta EHUko irakaslea (Durango, 1966) zuzendu zuen ikerketan, Jose Rodríguez Fernandez, Angel Martínez Montecelo eta Aitziber González García ikertzaileek ere parte hartu zuten. Aurten, Otxandioko Udalak *Limitado. Gatazka lurralde baten azterketa historiko arkeologikoa* liburua argitaratu du.

Limitaduari buruzko ikerketa sakona egin zenuten orain urte batzuk. Zein zen helburua?

Limitaduan zer gertatu zen azaldu gura genuen, eta lurzati horregaz lotuta sorturiko gatazka menderik mende zelan aldatu den: zeintzuk aldaketa gertatu diren eta zelan heldu garen gaur egungo momentura. Dena ikuspuntu zabal batez eta sakontasun historikoa baliatuta. Horixe zen ikerketaren helburua. Diziplina anitzeko ikerketa egin genuen eta horrela islatzen da liburuan.

1457ra jo behar dugu Limitaduko gatazkaren abiapuntua ezagutzeko.

Esan genezake orduan irten zela argitara Limitaduko gatazka. Izan ere, Juan Alonso de Muxika Aramaioko Jaunaren amak, Elvira de Leivak, sinatutako 1457ko Konkordian Otxandioko hiribilduaren eta Aramaioko Jaunaren arteko gatazka aipatzen da, eta agiri horrek aurretik zegoen egoera bat biltzen du. Egoera hori konpontzeko ahalgina da Konkordia, baina kontrakoa gertatzen da.

Zer jasotzen du 1457ko Konkordiak?

Limitaduaren deskribapena egiten da, nondik nora den —gaur egun oso muga antzerakoak izango lituzke— zehazten da, eta baita Otxandioko hiribilduari eta bertako biztanleei zenbat eskubide ematen zaizkien. Basoaren ustiapenagaz loturiko pribilegioak ere aipatzen dira. Kontuan hartu behar da basoa oso baliabide garrantzitsua zela momentu hartan:



"Otxandiok ezinbesteko izan ditu Limitaduko baliabideak"

BELEN BENGOTXEA REMENTERIA ARKEOLOGOA ETA EHU-KO IRAKASLEA

Limitaduari buruzko jakintza-alorrrarteko ikerketa sakona zuzendu zuen. Bertan baturiko informazio guztia liburu batean jaso du orain Otxandioko Udalak

ganaduaren jatekoa eta edatekoa han zegoen, etxea berotzeko edo kozinatze behar zuten egurra ere bai, fruitu lehorrak basoan zeuden, etxeak eraikitze zura ere bai... Baliabidez beteriko lekua zen Limitadua.

Zeintzuk pribilegio zituzten?

Ganadua Limitadura eramateko eskubidea zuten, aberiek bertan jan eta edan zezaten, eta egurra eskuratzeko pribilegioa ere bai. Ahal zen neurrian, lur horiek landatzeko eskubidea ere lortu

zuten. Hala ere, otxandiarrek ezin zuten lur zati horretan etxerik eraiki, ezta bertatik zura atera ere eraikuntzak egiteko. Aramaioko Jaunak berarentzat gorde zuen pribilegio edo eskubide hori. Otxandiok ez zeukan

lur zati horren jurisdikzio eta jabetza eskubiderik.

Dena dela, horrek ez zuen herri bien arteko gatazka konpondu.

Ez, inola ere ez. Harrezkero eztabaida edo liskar mordoa sortu da Limitaduaren inguruan, etengabe. Dena dela, 1664an Limitaduaren jurisdikzioaren zati bat berea izatea lortu zuen Otxandiok. Jurisdikzio partziala zen, basoaren ustiapenagaz loturiko arazoetan baino ez zeukan-eta erabakitze eskumena. Urte horretan, alkateak eta kontzejua egindako mugarren bisita ofizialdu zen. Hor du jatorria gaurdaino heldu den Otxandioko Basabisitak. Limitaduko inguruko mugariak aztertzen hasi ziren eta hiribilduko alkateak Bizkaiko Korrejidorearen Teniente Nagusiak emandako Justiziako Errege Makila eroan zuen.

Otxandiok ez zuen bereganatu eskubide gehiago.

Ez, eta gehiago korapilatu zen gatazka. Izan ere, XIX. mendean aktore berriak agertu ziren; instituzio berriak sortu ziren: Aldundiak. Arabakoak Aramaioren alde egin zuen, eta Bizkaikoak Otxandioren alde. Garai nahasiak izan ziren, gainera. Gerraz be-



Usadioari eutsiz, Otxandion Basabisita egiten dute iraileko hirugarren domekan, Limitaduko mugak aztertze. OTXANDIOKO UDALA



Udal ordezkariak akta sinatzen dute Oletan urtero. UDALA



Arbola batean egindako seinale bat. UDALA

tetako urteak izan ziren, karlistadak gertatu ziren... Eta dirua behar zen. Testuinguru horretan, gatazka gehiago sortu zen: Limitaduko biztanleek non ordaindu behar zituzten zergak? Auzia asko korapilatu zen, nahiko modu gordinen. **Gipuzkoako Aldundiaren bitartekaritza ere eskatu zen 1911n, baina ez zen konponbide batera heldu.** Gipuzkoako Aldundiak Arabakoaren alde ebatzi zuen, eta Bizkaiko Aldundiak eta Otxandio ez zuten hori onartu. Beste ahalegin bat egon zen 1918an: Bizkaiko Aldundiak dirua eskaini zion Arabakoari, baina azken horrek ez zuen onartu. Azken ahalegina Arartekoak egin zuen, 1999an. Limitadua udalerri bien artean banatzeko proposamenak ez zuen aurrera egin eta gaurdaino mantendu da tirabira. Limitadua Aramaio-rena da, baina lurraren aprobe-txamendua eta jurisdikzioa, zati batean, Otxandio-rena. Dena dago nahastuta, eta han bizi direnen egunerokoa eragin zuzena du. **Auzi historikoz gainera, Limitaduen paisaiaren garapena ere jaso duzue liburuan.**

Limitaduan paisaia eta ondarearen garapena eta auzi histo-

rikoek paisaia horretan izan duten eragina azaldu gura izan dugu. Horretarako, askotariko 319 elementu batzen dituen katalogoa osatu dugu. Mugarriak, abereentzako txabolak, gerra garaiko lubakiak, txondorrak... batzen ditu. Baita biomarkagai-luak ere: markatuta dauden arbolak edo eremu zehatz bat mugatzeko erabili diren elementuak (arbolak edo elorri zuria, adibidez). Elementu horiek guztiek paisaia horrek duen balioa erakusten digute, eta Limitaduan begi-bistakoak eta ikusgarriak dira. Arbolak inausita daudela ikusi daiteke, egurra lortzeko ebakita. Eta adarrek oso itxura desberdina dute, egurrari emango zitzaion erabileraren arabera moztu ziren erakusle (habeak lortzeko, ikatz-egurra izateko...). Aurreikuspen itzelagaz ustiatzen zuten basoa, oso lan zorrotza egiten zen. Otxandio ezinbesteko izan ditu Limitaduko ba-

"GAUR EGUN BIZIRIK DAGOEN AUZIA DA LIMITADUKOA, HORREK EGITEN DU BEREZI"

liabideak herriaren garapenerako. Oso ikerketa aberatsa da, modu transbertsalean landu dugulako. Lan geografiko handia ere egin da eta hainbat mapa jasotzen du.

Lan etnografikoa ere egin duzue.

Otxandiarrek gatazkari buruz duten pertzepzioa ezagutzeko, elkarrizketak egin genituen adineko pertsonekin, eta ikusi dugu elementu identitario bat direla bai gatazka historikoa bai Basabisita. Interesgarria izan da ikustea komunitatearen identitatea indartzen dutela. Errituak, jaia, identitatea, historia... hori guzti hori nahasten duen ohitura oso aberatsa da Basabisita.

Zerk egiten du berezi Limitaduko auzia? Badu konponbiderik?

Auzia Erdi Aroan sortu zen eta XXI. mendean bizirik jarraitzen du oraindino. Horixe da Limitaduan duen berezitasun nagusia. Erdi Aroan ohikoa zen herriko lurretan gatazkak sortzea, Euskal Herrian eta Europan ere bai. Baina horrenbeste iraun duenik ez dut ezagutzen. Erdi Aroko parametroetan sortu zen auziari konponbidea ematea ez da erraza; gaur egungo testuingurua beste bat da.

**anboto
kide**



Anbotokideen txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK



BASA take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Erromeria doinuekin dantzatzeko hitzordua

Zapatuan, hilak 4, Bizkaiko lehenengo Erromeria Eguna egingo dute Durangon. Plateruena, Landako Gunea eta Ibaizabal parkearen inguruak askotariko ekitaldiz beteko dira. 11:30ean inauguratuko dute eguna, Platerueneko ekitaldian

Ekaitz Herrera DURANGO

Izan doinu tradizionalak, izan erritmo dantzagarri modernoa-goak, erromeriak izan ditzakeen askotariko aurpegiez gozatu ahal izango da zapatuan Durangon. Udalerrriak Bizkaiko Erromeria Eguna hartuko du, egitasmoaren lehenengo edizioa. 11:30ean ekingo diote jardunaldiari, eta ordu txikiak arte iraungo du. Leku berean hasi eta amaituko dute eguna, Plateruenean. Bien bitartean, jaia alde-rik alde zabalduko da.

Ibaizabal parkean puzgarriak, gazteentzako Esna Gazte! erromeria eta karaokea egongo dira Go!-zen telesailako hiru aktoregaz. Ibaizabal plazan, Aiko taldea egongo da (13:00), eta Larrain dantza herrikoia egingo dute goizean. Arratsalde partean, 16:00etan, Iker Alvarez eta Aitor Urkiza txistulariak, Ibon Koterona eta Julen Begoña albokariak, Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña trikitilariak eta Zabaleta eta Motriku trikiti-



Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña. ERROMERIA EGUNA

lariak egongo dira. Landako Gunean herri bazkaria, Luhartz taldearen erromeria eta Yogurinha Borova egongo dira. Eta Plateruenean herri kirolak egongo dira, 11:45ean. Parrandan jarraitu gura dutenek Errota, Zazpizar, Altza

Porru eta Gaitegun erromeriak izango dituzte zain, 20:00etatik aurrera. Musika Eskolan berbal-diak egongo dira goizean, eta Durangoko kaleak askotariko animazioz beteko dira. Egitarau osoa erromeriaeguna.eus atarian dago.



Singapurreko ordezkariak, joan zen barikuan, Landako Eskolan. LANDAKO ESKOLA

Singapurreko ordezkariak bat Landako Eskolan izan da

Durangoko ikastetxea aukeratu zuten bisitarako, Amara Berri sistemaz eta Translanguaging proiektuaz ikasteko

Ekaitz Herrera DURANGO

Joan zen barikuan, Singapurreko ordezkariak batek Landako Eskola bisitatu zuen bertako Amara Berri ikasketa sistema eta Translanguaging proiektua bertatik bertara ezagutzeko. Herrialde asiarreko hezkuntza ministerioko kideak, hezkuntza adituak eta hainbat irakasle joan ziren ikastetxera. Landako eskolako arduradunekin eta ikasketa arduradunekin batu ziren.

Arantza Arrizabalaga ikastetxeko zuzendariak jakinarazi duenez, ordezkariak kideek bazuten "Amara Berri sistemaren

ezagutza xumea, era teorikoan", baina horren esperientzia bertatik bertara ezagutzea falta zitzaien. Horrez gainera, bisitan zehar hizkuntzen irakaskuntzari ipini zioten arreta, "bereziki Euskal Hezkuntza sisteman", eta "euskaldunak ez diren ikasleek euskalduntze prozesuan" azpimarra eginda. Era berean, Singapurreko ordezkariak Landakoko Translanguaging programa ezagutzeko ere aprobeztatu zuten bisita, hiru hizkuntzaren ikasketa prozesuari (euskara, gaztelania eta ingelesa) erreparatzeko, hain zuzen ere.

Garaiko nagusien adierazpena, Adinekoen Eguna ospatzeko

Elkarteak manifestu bat kaleratu zuen urriaren 1ean, eta udalari helarazi zion. Eskari txiki bat egin zuten



Garaiko nagusien bazkaria San Migel egun bezperan. NAGUSIEN ELKARTEA

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko nagusiek manifestu bat kaleratuta ospatu dute urriaren 1a, Adinekoen Nazioarteko Eguna. Adierazpenean, bizimodua ulertzeko eta bizitzeko duten filosofia jaso dute eta asmo oneko berbak helarazi dizkiete udal ordezkariari. Testuan, udaleko kide guztien gertutasuna eskertu dute, eta bidea elkarregaz eta orain arteko moduan egiten jarraitzea deitu dute. Elkarteko kideek azaldu dute nagusienei behar dutenean laguntzen jarraituko dutela, jarrera aktiboagaz, eta eskakizun txiki bat ere egin diote udalari; belaunaldi arteko ekintza bat antolatzea eskatu diote. Bide batez, antzinako bideak, zordanbideak, bidegorri modura atontzea ere eskatu dute, bai nagusien bai gainerako herritarren gozamenarako.

Garaiko umeek ortuak emandakoa jasoko dute domekan

E.H. GARAI

Hile batzuk joan dira Garaiko umeek ortua atondu eta berduraren erein zutenetik, eta domeka honetan batuko dituzte lehenengo fruituak: kalabazak. Trumoitte elkarteak lan saioa antolatu du umeentzat. 10:30ean ortura joan, kalabazak batu, ortua atondu eta neguko ortuarien haziak ereingo dituzte. Ana de la Maza ekoizlea bidelagun izango dute.

Bestalde, umeek ondo gordeko dituzte baturiko kalabazak, urriaren 31ko Gaba Baltza ospatzeko erabiliko dituzte eta. Trumoitte elkarteak iragarri duenez, aurrerago emango dituzte hitzordu horretako xehetasunak.

San Inazioko txintxaunak estaliko dituzte Durangon

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak teiltua ipiniko dio herriko jolasgune bati. San Inazioko txintxaunak estaliko ditu eta umeek zein familiak leku estali bat gehiago izango dute laster, eguraldiak laguntzen ez duen egunetarako. Teiltuak 350 metro karratuko azalera estaliko du. Udalak iragarri du parkeko zoladura berriro eta hiri-altzari gehiago ere ipiniko dituztela. Alde teknikoari dagokionez, LED argiztapen erregulagarria ipiniko dute, eremua gauez ere erabili ahal izateko.

Teiltua egiteko obra lizitazio fasean dago momentu honetan, 287.617 euroko aurrekontuagaz.



ALE San Roke kontsumo taldeko kideak eta eskualdeko ekoizleak. ALE SAN ROKE

"Taldera zenbat eta jende gehiago batu, hobeto"

Urte bi dira Aramotz, San Roke eta Herria tabernaren bueltako bizilagun batzuek eta eskualdeko baserritarrek kontsumo taldea eratu zutela. Aliantzari eskerrak, bizilagunek baserritarren elikagaiak hartzen dituzte astero. Orain, taldea handitu gura dute

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Auzoa Lurrari Elkartuz edo ALE San Roke kontsumo taldeak auzotar gehiagorengana zabaltu gura du bere proiektua. Hau da, Aramotz, San Roke eta Herria tabernaren bueltako bizilagun gehiagorengana zabaltu gura dute astero-astero eskualdeko baserritarren elikagaiak jasotzeko ohitura. Izan ere, argi diote: "Zenbat eta herritar gehiago batu taldera, orduan eta hobeto, proiektua denontzat delako onuragarria; auzotarrontzat baserritarren elikagai osasuntsuekin elikatzen garelako, ingurumenarentzat tokiko elikagaiak darabiltzagulako, eta eskualdeko baserritarrentzat lan prezio duinak jasotzen

dituztelako", azaldu du Mikel Gandariasek, kontsumo taldeko kideak.

Proiektuaren funtzionamendua sinplea da: baserritarrak zein auzotarrak Herria tabernaren ondoko lokalean batzen dira astelehenero, 17:30ean. Baserritarrek elikagaiak eramaten dituzte lokalera, eta herritarrek horiek hartzen dituzte etxerako. Gandariasek azaldu duenez, oinarritzko produktuekin osaturiko otzarak dira: "Berdurak Izurtzako Eskubaratz baserrikoak dira, jogurta eta gazta freskoa Elorrioko Belaze etxeak, ogia Iurretako Patxikobaso baserrikoek dakarte, eta arrautzak Abadiñoko Erليا baserrikoek", zehaztu du. Eta

horrek guzti horrek denboran iraun dezan, alde biek kontratua egiten dute sei hilerik behin. Horregaz guztiagaz, kontsumo taldeko kideek alternatiba bat eskaini gura dute gaur egun nagusi den eredu agroindustrialaren aurrean. "Geroago eta gutxiago direlako gu elikatzen dabilzan baserritarrak", zehaztu du Gandariasek. "Ale txikia da gurea, baina baserritarrak babestu gura ditugu", azpimarratu du. Taldera batu gura dutenek ale.sanroke@gmail.com helbidera idatzi dezakete, edo lokalera agertu daitezke astelehenetan. Bestalde, ALE San Roke prest agertu da Durangon sortu daitezkeen gainerako kontsumo taldeei laguntzeko.



Merkatariak, udaletako kideak eta Mankomunitateko presidentea.

2.500 euroko saria tokiko komertzioetan erosteagaitik

Merkatari elkarteak bultzaturiko kanpainak eskualdeko udalen, Mankomunitatearen eta Aldundiaren babesa du

Maialen Zuazubiskar DURANGALDEA

Martxan da *Ongi Etorri* kanpainaren bigarren edizioa, Abadiñoko, Berrizko, Durangoko, Elorrioko eta Iurretako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen elkarteek sorturiko ekimena. Urriaren 12ra bitartean eskualdeko bost herri hauetako dendetan erosten duten herritarrek 2.500 euroko saria irabazteko aukera izango dute. Kanpainagaz bat egin duten establezimenduek banderatxo bat izango dute erakusleihoetan, kanpainaren irudiagaz. "Kanpainaren helburu nagusia herritarrek herrietako establezimenduetan sartzera eta han eskaintzen dutena ezagutzea da. Gonbidapen argi eta hurbil bat helarazi gura dugu: atea zeharkatzea, negozio bakoitzaren atzean dauden pertsonak ezagutzea eta Durangaldeko eskaintzaren aniztasunari balioa ematea", azaldu zuten

kanpainaren bultzatzaileek martitzenean egindako aurkezpenean. "Herriko komertzioaren aldeko apustu argia da. Gainera, kanpaina honek herrien arteko elkarlanaren eta sinergien garrantzia nabarmentzen du. Komertzioek inoiz baino beharrian handiagoa dute", esan zuten Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak.

24 orduan gastatzeko saria

Zozketa honetan parte hartzeko, nahikoa da ekimenaren barruko establezimenduetan erostea eta erosketa-tiketa (izen-abizenak eta telefono zenbakia bertan idatzita) saltokietan dauden kutxetan sartzera edo labur.eus/ongi-etorri-zozketa webgunearen bitartez izena ematea.

Pertsona guztien artean, 2.500 euroko sari bat banatuko da. Irabazleak 24 orduren barruan gastatu beharko ditu 2.500 euroak, 500 euro herri bakoitzean.

Mendilagunek Araban egingo du ikasturteko lehenengo txangoa

Legutio ondoko Jarindo eta Albertia mendiak ibilbide zirkular batean zeharkatuko dituzte domeka honetan

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Bueltan da AEKren Mendilagun programa, eta, haregaz batera, euskara praktikatzeko eta mendiaz gozatzeko jardunaldi sorta. Mendilagunek Araba aldean estreinatuko du aurtengo den-

boraldia, Legutio ondoko Jarindo (896 m) eta Albertia (867 m) mendiak igota. Domekan joango dira bertara. Durangoko San Roke auzoko aparkalekuan elkartuko dira, 08:30ean. Handik autoz joango dira Le-

gutiora, eta behin Albinako urtegira helduta ibilaldia hasiko dute. Izen emateak 639 400 786 whatsapp zenbakian egin behar dira.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ibilaldia 10 kilometro luze da, zirkularra, eta 450 metroko desnibela du. Zailtasun maila errazekoa da, hiru ordu eta erdian egiteko modukoa. Jarindo eta Albertia mendiak igotzeaz gainera, txangozaleek Legutioko batailaren oroitarria bisitatuko dute.



Mendilagunen irteera bat, Oriol mendian. MENDILAGUN AEK

Gerediagari lokal bat uzteko prozedura, martxan

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak Gerediaga Elkarteari Trañaerota 2-4 lokala uzteko prozedura hasi du. "Udalak eskari bat jaso zuen martxoan. Gerediaga Elkarteak jakinarazi zigun leku handi bat behar zutela, biltegi bat. Baldintza teknikoak aztertu genituen eta, eskari horri bidea emateko, gaia osoko bilkurara ekarri dugu", adierazi du aste honetako osoko bilkuran Monika Iglesias EH Bilduko zinegotziak. "Sortu zenetik, Gerediaga elkarteak kultur arloan eta memoria historikoaren inguruan egin duen ekarpena ukazina da. Ondarea zaintzea izan dute helburu, eta Abadiñorentzat horrelako artxibo bat herrian izatea aukera paregabea da. Hori horrela, eta jakinda 20 urtean lokal horietarako dagoen proiektu bakarra hau dela, puntu hau osoko bilkurara ekarri dugu", gaineratu zuen Iglesiasek.

Patxo Campo PSE-EEko zinegotziak proiektuaren alde daudela azaldu zuen. "Ondarea zaindu egin behar da. Beraz, Gerediagari herrian leku bat uztea egoki ikusten dugu". EAJko Mikel Garaizabalek, oster, proiektu honegatzat "zehaztapen falta" dagoela kritikatu zuen.



Lokala Traña-Matienan dago, Trañaerota 2-4 lokala da.

"Txosten juridiko bat dago, baina besterik ez. Urte bian ez da ezer aipatu, eta orain, hile bira, plenera ekarri dugu", esan du Garaizabalek. Hori horrela, jeltzaleak abstenitu egin dira.

Kontrako boto bakarra EH Bildegaz batera gobernu taldean dauden Independente Berriena izan da. "Gerediagak lan handia egiten du eta hau ez da ezezko bat Gerediagari, hau baiezkotzat da lokal horiei. Lokal horietan etxebizitza sozialak egitea aztertu beharko litzateke. Bideragarritasun azterketak lokal horietan

etxebizitzarik ezin dela egin badiosku, orduan aztertu egingo genuke", esan du Eurne Maguregi Abadiñoko Independente Berriak taldeko kideak.

Denei erantzunez, Mikel Urrutia alkateak esan du iritzia orokorrean ez direla "hain kontrajarriak". "Denok ikusten dugu Gerediaga elkarteak egiten duen lana onuragarria dela eta Abadiñon etxebizitza sozialen premia dagoela. Gaurko pauso honegatzat, teknikariak zehaztasun osoz aztertzen hasiko dira gaia", amaitu zuen Urrutiak.



Mikel Urrutia eta Eurne Maguregi, Muntzaratzeko prentsaurrekoan.

Elorrio-Bilbao linea astean zehar ez da Muntzaratzen geratuko

Bizkaiko Foru Aldundiak udalari jakinarazi dio 3923 lineak Muntzaratzen geratu barik jarraituko duela

M.Z. ABADIÑO

Atzo goizean gobernu taldeak prentsaurrekoa eman zuen Muntzaratzen, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaibussen zerbitzuen harira emandako erantzuna plazaratzeko. Udalak jakinarazi duenez, eskaera guztien artean onartu den proposamen bakarra EHUrak doan A3924 linearen ibilbidean eta ordutegian aldatzea egitea izan da.

Gainerako guztiak atzera bota dituzte eta horien artean dago herritarren artean eskaririk handiena duena, hau da, Muntzaratzeko geltokiarena. A3923 lineak (Elorrio-Bilbo) astean zehar ez du gel-

dialdirik egiten Muntzaratzen. Martxoan, abadiñar batek bultzatuta, ia 500 sinadura jaso zituzten autobusa bertan gelditzeko eskatzeko, eta sinadurok Aldundira helarazi zituzten udalak egindako eskaeragaz batera. "Aldundiak ez du proposamena onartu. Euren esanetan, Muntzaratzeko geroalekua gehitzeak Elorrioko zerbitzuaren kalitatea okertzea ekarriko luke", adierazi du gobernu taldeak. Gaineratu du erantzunak ez dituela herritarren beharizanak asetzen, eta Bizkaiko autobus zerbitzuaren hurrengo lizitazioan alegazioak aurkezteko eskatuko dutela.

Mallabian Goitondoko autobus geltokia egokitu dute

Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntasunagaz egin ditu lan hauek. 79.575 euroko aurrekontua izan dute

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak lanak egin ditu Goitondoko autobus geltokia irisgarriago eta seguruago egiteko asmoz. Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, oinezkoiei eta garraio publikoaren erabiltzaileei erosotasun handiagoa eskaintzeko asmoz, zehaztu dute.

Lanen aurrekontuari dagokionez, Goitondoko autobus geltokia konpontzeko obrek 79.575 euroko kostua izan dute guztira. Lan hauek Bizkaiko Foru Aldundiak ere finantzatu ditu. Aldundiak 50.135 euroko diru laguntza eman du.

lera duen espaloi bat, oinezkoentzat. Bestalde, oraindino egiteko dagoen arren, espaloiaren ondoan markesina bat ipiniko dutela jakinarazi du udalak. "Garraio publikoaren erabiltzaileei erosotasun handiagoa eskaintzeko asmoz", zehaztu dute.

Lanen aurrekontuari dagokionez, Goitondoko autobus geltokia konpontzeko obrek 79.575 euroko kostua izan dute guztira. Lan hauek Bizkaiko Foru Aldundiak ere finantzatu ditu. Aldundiak 50.135 euroko diru laguntza eman du.



Goitondoko autobus geltokia. MALLABIKO UDALA

Urriko jaietan txosna ipintzeko eskaera egiteko epea, zabalik

M.Z. MALLABIA

Urriaren 24an, 25ean eta 26an ospatuko dituzte aurtengo Urriko Jaiak. Jaietan txosna ipini gura duten elkarteek urriaren 10era arteko epea izango dute eskaria egiteko.

Elkarte interesdunek eskaera telematikoa aurkeztu beharko dute, beharrezko dokumentazioa gehituta. "Txosnak modu ordenatuan eta seguruan instalatuko direla bermatu gura dugu, Urriko Jaien garapen egokia indartzeko eta, aldi berean, tokiko elkarteek udalerriko jai bizitzan parte hartzea bultzatzeko", azaldu du Mallabiko Udalak.



Elkartegia.

Durangaldeko Mankomunitatea

Durangaldeko Mankomunitateak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa onartu berri du joan zen egueneko osoko bilkuran. Plan Estrategikoko berria Eusko Jaurlaritzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia (KEMEN) eta irizpideak jarraituz egin da, eta horren gainean eraiki da hurrengo urteetarako estrategia.

Herritarrei begira, DMAk konpromisoa hartu du administrazioagaz euskaraz aritzeko eskubidea bermatzeko. Horretarako, langileek lehenengo berba euskaraz egingo dute, eta herritarrak aukeraturako hizkuntzan jarraituko da. Euskarazko arreta bermatuko da, eta komunikazioak euskaraz edo ele bietan egingo dira, betiere euskarari lehentasuna emanez. “Euskararen erabilera ez da bakarrik helburu instituzional bat; gure komunitatearen kohesiorako eta identitate kolektiborako tresna nagusia da. Plan estrategikoa honegatik, herritarrek administrazioagaz euskaraz jarduteko eskubidea praktikan bermatuko dugu eta erakunde modura eredugarri izateko konpromisoa hartu gura dugu”, esan du Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea.

Planak ardatz nagusi bi ditu: kudeaketa eta erabilera. Helburu nagusiak honako hauek dira:

- **Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta hizkuntza berdintasuna sustatzea.**
- **Euskararen erabilera normalizatzeta eta areagotzea Mankomunitatearen jardura guztietan.**

Mankomunitatearen jardura guztietan euskararen erabilera normalizatzeta helburu duen plana, onartuta

JOAN ZEN EGUENEAN ONARTURIKO EUSKARA PLANAK ARDATZ NAGUSI BI DITU: KUDEATETA ETA ERABILERA

- **Mankomunitatearen jardura eredugarri izatea euskararen normalizazioan.**

Diagnostikoa eta erronkak

VI. Plangintzaldiaren ebaluazioan, DMAk 647,8 puntu zituen 1.000tik. VII. Plangintzaldiaren amaierarako, 733,42 puntu lortzea aurreikusten da, hau da, % 73,34ko garapen-maila. Horrek erakusten du hobekuntza nabarmena izango dela bai kudeaketan bai erabileran. Indarguneen artean daude:

- Langileen eta arduradun politikoen hizkuntza-gaitasun handia.
- Zerbitzu-hizkuntzaren erabilera-maila handia (% 86,6).
- Herritarrekiko hartu-emanetan euskararen presentzia (% 83,25).
- Irudi korporatiboan eta komunikazio instituzionalean euskararen erabilera sistematikoa.

Hala ere, hobetzeko arloak ere identifikatu dira planean, zerrenda honetan lehenetsiak ezarrita:

- Kudeaketa orokorra indartu behar da, egitura berriak martxan ipinita.
- Hizkuntza irizpideak ere, metodologia eta irizpide berriak kontuan hartuta, eguneratu, adostu eta zabaldu beharra dago.
- Prestakuntza-eskaintza euskaraz izatea areagotu behar da.
- Kanpo-harremanetan, bereziki sektore pribatuagaz, euskararen erabilera bultzatu behar da.
- Teknologia eta baliabide informatikoen erabilera euskaraz izatea indartu behar da.

HERRITARREK ADMINISTrazioAGAZ EUSKARAZ JARDUTEKO ESKUBIDEA PRAKTIKAN BERMATUKO DUGU

Neurri zehatzak eta egitura berriak

Planak jarraipen-egitura zehatza proposatzen du, besteak beste:

- Euskara Batzordea: ordezkaritza politikoa, departamentuetako arduradunak, zerbitzuetako enpresen ordezkariek eta euskara teknikaria.
- Herritarren Informazio Batzorde Iraunkorra: zeharkako kontraste lanak egiteko.
- Lantalde operatiboak: erabilera planeko gai zehatzak lantzeko.
- Gainera, hizkuntza irizpide berriak eguneratu eta onartu dira, eta, besteak beste, horien artean daude:
- Zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa euskararen erabilera lehenestea.
- Kontratu publikoetan, diru laguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza klausulak sistematikoki txertatzea.
- Komunikazio elebidunean euskarari lehentasuna ematea.
- Prestakuntza, baliabide informatikoa eta komunikazio tresnak euskaraz eskaintzea.

Sanmigelek lurretako Zirkua ekarriko dute bihar

lurretarrak sanmigeletako azken txanpan sartuko dira asteburuan. Mozorro eguna baliatuta, lurretako Zirkua ikusteko aukera egongo da zapatuan. Jai batzordeak bertso jaialdia, tortilla txapelketa eta umeentzako jolasak antolatu ditu, besteak beste, gaurko

A. Basauri IURRETA

Jaietako lehenengo asteburua pasatuta, iurretarrak sanmigeletako azken txanpan sartuko dira gaur. Indarra berreskuratu ondoren, berriro ere jai giroaz gozatzeko aukera izango dute domekara bitartean. Mozorro eguna baliatuta, lurretako Zirkua izango dute herrian, zapatuan. Jai batzordeak herriko kuadrillak abesti bat aukeratu eta zirku-ikus-kizun bat prestatzera gonbidatu ditu, lehenengoz. Bada, erronkari heldu diotenek euren lanaren azken emaitza erakusteko aukera izango dute. Marmitako txapelketak, herri bazkariak eta Luhartz taldearen erromeriak borobilduko dute eguna.

Hala ere, gaurko egunez ere egongo da zer gozatu. Umeentzako jolasak eta tortilla txapelketa antolatu dituzte. Alarma Moreak joko du Askondon, eta frontoiak bertso jaialdia hartuko du. Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga ari-



Iaz Oktoberfest jaialdia irudikatu zuten lurretan.

HERRIKO KUADRILLAK ZIRKU-IKUSKIZUN BAT PRESTATZERA GONBIDATU DITU JAI BATZORDEAK

tuko dira kantuan. Gau giroa Oilar Baltzak taldeak, Malakias MX3k eta DJ Rekalek berotuko dute. Domekan, nekazaritza eta artisautza azoka, harrijasotzaile gazteen saioa eta dantzariak egongo dira, besteak beste.



Apatako frontoian izan zen ekimena.

Bingo arrakastatsua Atxondon

Adineko Pertsonen Nazioarteko Egunaren harira, Apatako frontoian antolaturiko bingoak bere helburu nagusia bete zuen. Irudietan ikusten den moduan, hainbat belaunaldiren topagune bihurtu zen, eta ume, gazte eta helduek elkarrengaz eman zuten arratsaldea Virginia Imaz clownak gidaturiko saioan. Ondoren, txokolatea hartu zuten.

Desfibriladore berriak ipini dituzte Apatan, Axpen eta Arrazolan

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak desfibriladore berriak ipini ditu herri-tarren zerbitzura. Batetik, Apatan orain arte udaletxe barruan zegoena pilotalekuko komunen ondora atera dute. Bestetik, Arrazolako eta Axpeko desfibriladoreak berriak dira. Auzo batekoak zein besteak elizpean daude.



Axpeko desfibriladorea.

Umeen dantza talde bat sortzen ahaleginduko dira Mañarian

Andra Mari dantza elkarteak txikien taldea berreskuratu gura du. Interesdunentzat hitzordu bat ipini dute gaurko

J.D. MAÑARIA

Urte batzuk dira Mañarian umeen dantza talderik ez dagoela. Andra Mari dantza eta kultur elkarteak ahailegin bat gehiago egin du egoera horri buelta emateko, baina oraingoz ez du fruiturik eman. Orain beste ahailegin bat egingo dute lau urtetik gorakoen taldea sortzeko. Interesa dutenei begira hitzordu bat ipini dute gaurko (urriak 3). Udaletxearen atzeko aldean elkartuko dira, 17:30ean. Gura duenak manari-koandramarielkartea@gmail.com helbidera ere idatzi dezake.



Andra Mari dantza taldeko gazteak.

Agirresarobek ipuin kontaketa saioa egingo du Izurtzan

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak umeentzako ipuin kontaketa saio bat antolatu du astebururako. Izabel Agirresarobek bost urtetik gorakoentzako *Maleta Bete Ipuin* ekarriko du domekan, 17:30ean, erabilera anitzeko aretora.

Maleta barruan liburu mutu bat dago. Orririk orri eta pertsonaiak agertu ahala, istorioak aurrera egingo du. Kontalariak ahotsa eta mugimendua emango dizkio kondairara zahar honi, baina entzuleen laguntasuna ere beharko du. Istoriok igarkizunen edo berba jokoen bitartez egingo du aurrera. Horrela, bertaratzen direnen parte hartzea beharrezkoa izango da.

San Antonio auzorako bidea konpondu berri dute Otxandion

A.B. OTXANDIO

Otxandio Udalak San Antonioko baselizatik Elizabarrirainoko bidea asfaltatu berri du, San Antonioko bizilagunen eskariari erantzunez. Auzotarrek herrira oinezko joan-etorria lasai eta seguru egin ahal izateko, udalak 48.280 euro erabili ditu, "kalitatezko bidea" egokitzeko. Bizkaiko Aldundiak ia 13.000 euroko diru laguntza eman du inbertsio horri aurre egiteko.

Bestalde, Mendikurku eta Presazelaiko larredi publikoetan hainbat hobekuntza egin dute, abeltzainekin adostuta. Sasiak kendu eta itxiturretan hobekuntzak egin dituzte, "abeltzaintzarako erabilera egokia bermatzeko".

Goitibehera txikien jaitsierak, domekan, Zaldibarren

E.H. ZALDIBAR

Domekan, kirola, abiadura eta aisialdia batzeko eguna izango dute Zaldibarren: Inertzia Eguna. Egun osoko jardunaldia izango da, umei begirakoa eta goitibehera txikiak ardatz izango dituen. 11:00etan, goitibehera txikiak egiteko tailerra izango dute plazan, eta behin horiek prestatuta, 16:00etan, goitibeherok probatzeko tartea hartuko dute; goitibehera jaitsiera egingo dute hiru gurutzetatik behera. Aldatsa elkarteak eta Gaztelekuak antolatu dute eguna, udalaren laguntasunagaz. Tailerrean egindako goitibehera bat zotz egingo dutela iragarri dute antolatzaileek.

"Cumbia ardatza da testuingurua lantzeko"

EMILIA LARRONDO IKERLARIA ETA EKINTZAILE FEMINISTA ETA ANTIARRAZISTA

Emilia Larrondok musikaren bitartez bizi du mundua eta musikaren bitartez zabaltzen du bere ikuspuntua; cumbia ardatz duen ikastaroa emango du Elorri, urritik aurrera

Aritz Maldonado ELORRI

Emilia Larrondo mexikarrak musika eta pentsamendu kritikoa uztartzen ditu bere jardunean. Hezkuntzan trebatua da, eta, ikastaroetan ez ezik, herrietako plaza eta eramatzen du zirkuitu komertzialetik kanpoko musika latinoa, Hija del Nopal ezizenagaz. Elorri ikastaroa hasiko du urrian; Zornotzan ere ematen du. **Abya Yalan (Amerika) zehar bidaia sonoro bat proposatzen duzu.**

Cumbia sortu zenetik gaur egungo musikara arteko musika aukeraketa bat aztertzen dugu. Paraleloki, ibilbide sonoro hori Kolonbiatik hasten dugu, bertan sortu baitzen cumbia, eta hor kolonializazioaz berba egiten dugu. Bertatik beste herrialde batzuetara jauzi egiten dugu, cumbiak egin zuen legez, Perura adibidez, eta horrek beste prozesu historiko batzuei buruz berba egiteko aukera ematen digu, hala nola garapenari, industrializazioari zein landa eremutik hirigunee-



Emilia Larrondo.

tarako migrazioari buruz. Cumbia Villeraren bitartez neoliberalismoari buruz berba egingo dut, eta Texaseko cumbiaren bitartez, oster, mugei buruz mintzatuko naiz. Zelanbait esateko, cumbiaren bitartez herrial-

de batzuen testuinguru sozial, kultural eta politikoak lantzen dira, kolonializazioari buruz hausnartu ahal izateko; kolonializazioa momentu jakin bat izan zen, baina hor ezarri ziren egitura eta joera edo logika batzuk gaurdai-

no mantendu dira, erreproduzitzen jarraitzen dute.

Teoria eta praktika uztartzen dituzu. Musikaren bitartez, beharbada hitzaldi akademikoekin ikutzen ez diren sentsibiltate batzuk ikutu daitezke. Funtsean, dantza, entzutea eta diskurtsoa tartekatzen ditut antiarrazismoaz berba egiteko. Horrek norbera zeharkatzen du eta beste mota bateko hausnarketetara darama entzulea. Pueblan, nire sorterrian, irakasle lanetan aritu naiz unibertsitatean, eta nire ama ere irakaslea izan zen, eta asko gustatzen zait erakustea. Metodologia desberdinak atsegin ditut, eta irakaste-prozesu desberdinak ikustea. Eta zapalduta dauden kolektiboekin lan egitea gustatzen zait, kolektiboki, gizartea eraldatzeko. Latinoamerikan oso jarraituak ziren 80ko hamarkadan. Behin hona helduta, zaintza lanaz arduratzen diren emakume migratuekin ere lan egiten hasi nintzen, eta paraleloki, musika asko gustatzen zait. Nahiko naturala izan zen bide biak elkartzea. Hain zuzen ere, bide bi horiek master amaierako lanean batu nituen. Biniloen bilduma egiten dut eta irratan ere parte hartzen nuen Mexikon. Hortik sortu zen Hija del Nopal proiektua.

Parte hartzen duen jendeak profil jakin bat du?

Ikastaroa bertako emakumeentzako eta emakume migratu zein arrazializatuentzako topagune izateko diseinatu dago. Oso foro

gutxi dago elkar ezagutzeko eta elkarren berri izateko. Ez dakigu albokoak zer bizi izan duen. Bertakoe, adibidez, ez dakite zer suposatzen duen paperak lortu behar izateak, edo kanpoan beste kultura batean bizitzeak. Zelanbait esatearren, eurozentrismo horrek zeharkatzen ditu. Kulturaren eta gorputzaren mugimenduen bitartez, ikastaroak elkar ezagutzea ahalbidetzen du. Oso polita da dantzaren poztasun horren bitartez elkar ezagutzea. Mundu guztian egiten dira dantza eta erritualak, eta horrek batu egiten gaitu. Hala ere, emakume migratuek lan baldintza eskasagoak dituzte orokorrean, eta ordutegi aldetik eta ez dute sarerik zaintza lanetarako. Horrek zaildu egiten die foro politiko edo kritikoetan parte hartzea. Cumbia amerikarren sustrai sonoroa da eta ikastaro hau oso erakargarria egiten zaie horregaitik, baina zailtasun horiek dituzte parte hartzeko. Beraz, herri batzuetako ikastaroetan emakume migratzaile gehiagok parte hartu ahal izaten du, eta beste batzuetan gehiengo bertakoa da. Hala ere, ideia modu erakargarrian zabaltea da garrantzitsua.

"KOLONIALIZAZIOA UNE JAKIN BATEAN IZAN ZEN, BAINA EGITURAK ERREPIKATU EGITEN DIRA"

Billiken dendari buruzko dokumentalaren emanaldi bi

Urriaren 8ko aurrestreinaldirako sarrera guztiak saldu eta gero, biharamunean beste bat egingo dute



Dokumentaleko fotograma bat. BEITTU VIDEO FACTORY

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Billiken dokumentalak eta honen aurrestreinaldiak ikusmina sortu dute. Izan ere, urriaren 8ko ekitaldia (19:00etan) iragartzeagaz batera, toki guztiak bete ziren; ondoren, bigarren proiektzio bat iragarri dute, urriaren 9ko (20:15ean). Bigarren emanaldi honetarako sarrerak Zornotza Aretoaren webgunean eskatu daitezke (doan). Billiken denda mitikoaren dokumentala Eduardo Larrea dendaria hil eta urtebetera estreinatuko dute, beraz. Denda ikonikoa zen Billiken, liburuak erosteko leku bat baino gehiago, babesgune bat, elkargune bat, eta ikus-entzunezkoaren estreinaldiak sortu duen ikusmira horren lekuko da. Beittu Video Factoryk egin du dokumentala, eta apalategien artean hazi zirenen testigantzak batu ditu.

Udal Kontseiluak udazkeneko egitaraua aurkeztu du

Berrizko Udal Kontseiluak lau jardura egingo ditu abendura bitartean; lehenengoa urriaren 16an izango da

A. M. BERRIZ

Gogoeta, berdintasuna eta nazioarteko lankidetzaren bultzatzeko helburuagaz, Gizarte Ongizate, Berdintasun, Immigratio eta Lankidetzarako Berrizko Udal Kontseiluak lau jardura antolatu ditu abendura bitartean. Lehenengoa Zapareak elkarteak emango duen *Zein da errefuxiatuen egoera?* berbaldia izango da; 18:30ean izango da, Kultur Etxean. Hurrengo deialdi biak azaroan izango dira; hilaren 15ean, ohikoa duten legez, Gaztainerre egingo dute Olakueta plazan, 19:00etan,

eta bertan batzen diren elikagaiak Saharara bidaliko dituzte; bestalde, hilaren 20an, Euskal Fondeak eta El Salvadorreko Toki Garapenerako Gizatalde Feministak (CFDL) egindako *Hemen bai borroka egiten da* film laburra proiektatuko dute. Ondoren solasaldia egingo dute. Zikloa *Freytler kasua* dokumentalaren emanaldiagaz amaituko dute, abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna harrira. Udalak gizarte sentsibilizazioaren aldeko apustua bermatu gura du programazio honegarekin.

Urteurren borobila

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko Urdiñak elkarte 50. urteurrenean murgilduta dabil. Zapatuan egin zuten ospakizun nagusia, herriko elkarte gastronomikoetan zehar, *soziedadez* pintxo dastatze musikatua eginda. Eguraldia lagun, herritar mordoa joan zen Urdiñakera eta gainerako txokoe-tara ospakizunaz, giroaz eta urteurrenaz gozatzera.



Herritar ugarik bat egin zuen elkartearen urteurrenagaz.

DURANGALDEA ASTEON

Mallabiko altxorak ezagutzeko aukera urriaren 4an

ATXONDO Mallabiko auzo-eskolak ezagutzeko ibilbidea antolatu dute urriaren 4rako. 10:00etan jarri dute hitzordua, Petrilean. Bertatik Beranoko eskola joango dira kotxez. Han, bertako kontu eta pasadizoen berri emango dute orduko ikasleek, eta ostean Gereara joango dira oinez. Ostean, hamaiketako egingo dute Trabaku goikoan, eta egunari amaiera San Juango eskolan emango diote. Bertako kontuak entzun, eta bazkaldu egingo dute. Izena ematea derrigorrezkoa da.



Palestinaren aldeko elkartasuna josten Zaldibarren

ZALDIBAR Zaldibar-Palestina dinamika kakorratz saioak hasi ditu Palestinaren aldeko ikurak sortzeko. Joan zen eguenean egin zuten lehenengo saioa, irailak 25. Joste lanak plazan egiten dituzte. Eguen honetan ere egin dute bigarren saio bat.



@LABDURANGALDEA

Kaleratzeak salatzeko lanuzteak ECS Mobilityn

DURANGALDEA Abadiñon eta Zaldibarren lantegiak dituen ECS Mobility enpresak "arrazoirik barik" hainbat kaleratze egin duela salatu du LAB sindikatuak. Azken biak oraintsu izan dira. "Ageriko arrazoirik barik eta zuzendaritzak definitutako plan baten barruan egin dituzte kaleratze hauek. Hurrengo hileetan plantilla finkoa nabarmen murriztuko da", esan dute sindikatukoek. LAB sindikatuak deituta, lanuzteak egin dituzte.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

**HERRIAREN
ESKUBIDEA -
INDEPENDENTEAK**

Lore sorta bat

Helduago egiten garen heinean, gero eta gehiago irudikatzen dugu gure zahartzaroa, hainbat galdera eginez geure buruari; gure osasunak errespetatuko ote gaituen, zenbat denbora izango dugun disfrutatze gure maiteen ondoan, zaintza duinak ordaindu ahal izango ote ditugun, eta kezagarriena, adinekoentzako arreta publikoaren faltak ezartzen duen iraultza-zergari biziraun beharrik gabe ibili beharko ote garen.

DURANGON, ADINEKO IZATEAGATIK DIRUA KENTZEAZ GAIN, DUINTASUNA ERE LAPURTZEN DIGUTE

Durangon, adineko izateagatik dirua kentzeaz gain, duintasuna ere lapurtzen digute, kalera irteteko aukera ukaturik; 'buru argi'-ren batek uda garaian igogailua konpontzea erabaki duelako. Zer jasotzen dugu ordez? Txandaka kalera irtetea bateria gabeko aulki batean, ez dagoelako prest egoitza batean ematen zaion erabilerarako. Irtenbidea bilatzen duten bitartean, gure aitite eta amamek bero-boladak haien urrezko kaiolan igarotzen dituzte, erantzun bat emango zaien zain. Beti geratzen zaigu kontsolamendu bat: ehun urte betetzean, lore sorta eder bat oparituko digutela.

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA


GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DURANGOKO JAIK 2025



DURANGOKO JAIK 2025

URRIAK 10 TXUPINAZOA

18:30 Jaiak hasteko kuadrillen elkartzea San Fausto auzoan

19:00 Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. Ondoren, kuadrillen jaitsiera udaletxeko plazaraino Tabira Musika Bandarekin.

19:30 Kalejira Santa Anatik txosnagunera.
Antolatzailea: Txosna Batzordea

20:00 Txupinazoa zuzenean pantaila erraldoian, Andra Mariko elizpean.

20:15 Erromeria Errota taldea durangarragaz Andra Mariko elizpean.

21:00 Txupinazoa txosnagunean Gaztetxearen eskutik.

21:30 Kontzertuak txosnagunean:
Reder, Nekktar, Zeker eta DJ Usu&lpi

22:30 Kontzertua Ezkurdin:
Bulego

URRIAK 11

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

08:30 Sukalki txapelketa Landako Gunean. Laguntzaileak: Cafés Baqué eta Hiper Eroski Abadiño.

11:00 Durangoko pilota eskolako

umeen partiduak
San Fausto pilotalekuan
Antolatzailea: Durango pelotazale kluba.

11:00 - 13:00 San Fausto haur marrazki lehiaketa

San Fausto auzoan (adina: 6-17)
Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte.

11:00 - 14:00 Txikientzako parkea Landako Eskolan: Bebeteka, ludoteka, puzgarriak, tailerrak. Euria bada, Landako Eskolako frontoian

11:00 - 14:00 Gaztetoentzako gunea Ibaizabal parkean: tragabola puzgarria, pista amerikarra, rokodromo puzgarria, kirol jolasak, tailerrak... Euria bada, San Antonio ikastetxean

11:30 Ingelesezkotz ipuin kontaketa Ezkurdiko kioskoan (3-8 urte). Antolatzailea: Kids&us Euria bada, Jesuitak ikastetxean

11:45 Tabira Musika Bandaren emanaldia
J.M. Barandiaran egoitzan

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin

12:00 Gazte eguneko kamiseta banaketa. Antolatzailea: Txosna Batzordea

12:00 Club Deportivo Wadokan karate-ninjitsu arte martzialen kalejira Urkiola kaletik Alde Zaharrera. Ondoren, erakustaldia Ezkurdin
Euria bada, Jesuitak ikastetxean

13:00 Tabira Musika Bandaren kontzertua. Andra Mariko elizpean.

14:00 Herri bazkaria San Fausto auzoan. Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte

14:30 Gazte eguneko bazkaria txosnagunean. Euria bada, Kurutziaga ikastolan

16:00 - 19:00 Txikientzako parkea Landako Eskolan
Euria bada, Landako Eskolako frontoian

16:00 Patinen freestylea Ezkurdin: tailerra eta erakustaldia. Euria bada, San Antonio ikastetxeko frontoian

16:00 Gazte jolasak txosnagunean

16:30 Sukalki bazkaloste musikatua DJ Ainhoagaz Landako Gunean

17:00 Adin guztientzako herri kirol parte hartzaileak Ibaizabal parkean. Euria bada, txosnaguneko karpan. Antolatzailea: Auzo Alai elk.

17:00 Karropoteo Kuirra Pinondotik txosnagunera Kuir Eztrandaren eskutik.
Antolatzailea: Txosna Batzordea

17:30 Senegaleko erritmoak M'Lomp elkartearen udaletxeko plazatik hasita.

18:00 Umeentzako tailerrak eta dibertxoak San Fausto auzoan.

18:00 Mauxitxa txaranga txosnagunetik hasita.
Antolatzailea: Txosna Batzordea. Euria bada, Kurutziaga ikastolatik

18:00 San Fausto zesta punta txapelketa. Finalak Ezkurdin. Neskak eta mutilak gazte eta nagusi mailan Ant.: Durango Jai

Kaixo Durango!



Ondo pasa
San Fausto
jaietan!



EROSKI

zurekin

17:00–20:00 'El Laberint' arratsaldeko saioa Aurora Abasolo parkean heldu eta haurrentzat. Euria bada, Nevers ikastetxean.

17:30 Josepa Kale Kaleregaz kantatu euskal abestiak Alde Zaharretik.

17:30 Egizu Dantzan Ene Kantak taldeagaz Andra Mariko elizpean.

20:00–22:00 Musika urbanoaren kontzertua San Fausto auzoan: *Yusen, EP Murcy, Azten eta Tierra Kritikal, bere DJagaz, Jay Scorp.* Ant.: San Faustoko auzo elkarte

21:00 Bertako DJ-ak Ezkurdin: *Sergio Torrado eta Gorka Perez.*

22:00 Diskodantza San Fausto auzoan. Euria bada, San Fausto auzoko karpan.

22:00 DJ maratoi herrikoia txosnagunean.

URRIAK 13
SAN FAUSTO EGUNA

07:00 Diana JAIZALE taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00–12:00 Durango Irratia AIREAN! 107.8 FM solasaldiak. Zuzeneko programazioa Ezkurdiko kioskotik Durangoko udal ordezkariekin eta herritarrekin.

11:00–14:00 Txikientzako parkea Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00–14:00 Gaztetxoentzako jolasak lbaizabal parkean. Euria bada, San Antonio ikastetxean.

11:00 Meza nagusia San Fausto elizan.

11:00 Paella txapelketa San Fausto auzoan. Paellak aurkezteko epea: 14:00etan. Sari banaketa 14:30ean. Ant.: San Fausto auzo elkarte.

11:30–14:30 Haurrentzako puzgarriak San Fausto frontoian.

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Paella txapelketa txosnagunean. Sari banaketa 14:30etan.

12:30 Ume eta familientzako ikuskizuna txosnagunean: Thor magoa.

12:30 Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa udaletxeko plazan. Ondoren, Kriskitin dantza taldea. Amaitzeko: Larraín dantza. Euria bada, Andra Mariko elizpean.

13:00 Kantu saioa Egundo taldearekin Alde Zaharretik.

16:00–19:00 Txikientzako parkea Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

17:00 Txokolatada San Fausto auzoan. Ant.: San Fausto auzo elkarte.

17:00 Mañaria errekaren jaitsiera Tabiratik. Ant.: Txosna Batzordea.

17:00 Zuresku egurrezko jolasak eta joku tradizionalak Torneos Durango elkartearen eskutik Ezkurdin. Euria bada, Nevers ikastetxean.

18:00 Umeentzako jolasak San Fausto auzoan. Ant.: San Faustoko auzo elkarte.

18:00 Patxi eta Konpainiagaz gira eta buelta dantzatu Ezkurdin. Euria bada, Plateruenean.

20:00 Swintronics swing eta elektronika fusio saioa Andra Mariko elizpean.

URRIAK 17

17:00 Txiki Rock Euskal rockaren kanturik esanguratsuenak familia osoaren neurrira, Andra Mariko elizpean.

17:00 Baloi Eseriko txapelketa merkatu plazan. Ant.: Torneos Durango.

19:00 Tortilla txapelketa

txosnagunean. Sari banaketa 20:30ean.

19:00 Pilota Fest Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Neskak pala gomazko Bizkaiko klubaren arteko txapelketa: Durango – Olgetan. Ander Martin Estenaga Durangoko Pelotazale Klubeko entrenatzaile izandakoari omenaldia. Ondoren, pilota partidua: Titin III eta Ander Antxia – Unai Agirrezabal eta Mikel Goñi. Sarrerak: 10. Salgai: Urrats Kafetegian, Alex Taberna, Mesoi Tabernan eta frontoiko leihatilan. Antolatzailea: Durango Pelotazale Kluba.

19:30 Fanfarreen kalejira norgehiagoka berotzeko: Sugarri fanfarrea Otamotzenatik Herria auzo elkarteak lagunduta. Gazteleku txaranga Madalenatik Auzo Alaik lagunduta.

20:00 Durangoko abesbatzen kontzertua Santa Ana elizan: *Zezili, Bogoroditsie, Astarloa Otxotea eta Izar Gaztea.*

21:30 Fanfarreen arteko norgehiagoka Andra Mariko elizpean.

22:00 Kontzertuak txosnagunean: *Ødei, Streetwise eta Les Testarudes.*

22:00 Bertsolariak San Agustín Kultur Gunean: Irune Basagoiti, Unai Iturriaga, Julio Soto, Beñat Gaztelumendi, Onintza Enbeita eta Miren Artetxe. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia Museoa, urriaren 10etik aurrera.

23:00 Kontzertua Ezkurdin: *Gatiburen azken bira.*

URRIAK 18
MOZORRO EGUNA
Ettxera eguna txosnagunean. Txosnetako moztaroren gaia: ipuinak eta kondairak

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia



www.leike.eus · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com



ALLUITZ MOTOR

Alluitz kalea, DURANGO
94 620 20 04
www.alluitzmotor.com



11:00–14:00 Txikientzako parkea Landako eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00–14:00 Haur tailerrak ASEBIER
elkartearen eskutik Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00 Xake txapelketa federatu gabeentzat Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago edo ajez. durango@gmail.com Ant.: Larrasoloeta Xake Taldea

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Kalejira trikitilariekin Txiri-txiri taldearen eskutik.

12:00 XVI. Patata tortilla txapelketa Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak / 16 urtetik gorakoak. Plazak zozketa bidez banatuko dira irailaren 30ean.

13:00 Aperitibo musikatua Luhartz taldeagaz Andra Mariko elizpean.

15:00 Elkartasun

bazkaria txosnagunean.
Ant.: Txosna Batzordea.

16:00–19:00 Txikientzako parkea Landako eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

16:00 Kontzertua txosnagunean:
Heitxi eta Alain.

18:00 Kalejira Sugarri fanfarreagaz.

18:30 Aireko akrobaziak eta zirkua disko musikaren erritmora Pakipaya konpainiaren “Shake shake shake” ikuskizun sarituagaz Ibaizabal parkean.
Euria bada, ikuskizuna bertan behera geratuko da.

18:30 Mozorro desfile koloretsua. Batu taldetxo bat eta parte hartu Madalenatik Andra Mariko elizperaino. Bukaeran, sari zozketa mundiala. Euria bada, Andra Mariko elizpean. Izen ematea urriaren 1etik 17ra www.durango-udala.eus webgunean.

20:00 Erromeria Luhartz

taldearekin Andra Mariko elizpean.

21:30 Kontzertua txosnagunean: *Maruxak eta Akerbeltz erromeria.*

23:00 Nuevo Versailles orkestra Ezkurdin.

23:00-02:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa Landako Gunean plazan (txosnagunean).
Ant.: Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Arloa.

URRIAK 19

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00 Arku-tirorako Txapelketa Landako Gunean: Bizkaiko lehen Raus autonomikoa eta San Faustoko arku-tiro txapelketa. Ant.: Durangoko arkulariak.

11:00 Nesken eta mutilen San Fausto XIII. Padel txapelketako finalak

Landako kiroldegian.
Antolatzailea: Padelzaleak.

11:30–14:30 Txikientzako parkea Landako eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:30–14:30 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

12:00 Makillaje tailerrak Otamotzena Parkean.

12:00 Poneyak eta zaldiak Tabira parkean. Euria bada, ez da egingo.

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Marrazki Lehiaketako sari banaketa San Fausto auzoan. Ant.: San Faustoko auzo elkarteak.

12:30 Herri kirolak Ezkurdin: Hodei Ezpeleta), Alex Txikon, Bihurri, Goizeder Baltza, Udane Ostolaza, Karlos Aretxabaleta, Ainhoa Larrinoa eta Aratz eta Enara Beltza ume

aizkolariak. Euria bada, Landako Gunean.

12:30 Taberna ibiltariagaz kantu saioa udaletxeko plazan.

17:00 Animazioa trikitixagaz pertsona nagusien egoitzetatik.

17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L'Atelier dantza eskolaren eskutik Ezkurdin.

17:30 Clowna, aireko akrobaziak, ekilibrismoa eta barreak Otamotzena parkean Rojo Telón taldeagaz. Euria bada, Nevers ikastetxean.

18:00 Gozatu zinearen historiako kantarik goxoenez Zinema Paradise saioan, Andra Mariko elizpean.

18:30 Kalejira Dunbots fanfarreagaz Alde Zaharretik.

19:30 Patxikotxuri eta jaiiei agur esateko kalejira udaletxeko plazatik hasita tren-kotxera zaharretaraino.

20:00 Jaien amaiera su artifizialekin tren-kotxera zaharretan.

URRIAK 25

20:00 Durango Txistu Kontzertua 2025 Landako Gunean. 30. Urteurrena.
Ant.: Silboberri Txistu Elkarteak.

URRIAK 26

08:00 Durangoko II. Mendi Martxa. Izena emateko: www.kirolprobak.com Ibilbide luzea (25 km.): Irteera (Landako Guneatik): 08:00 Ibilbide laburra (14 km.): Irteera (Landako Guneatik): 09:00. Ant.: Alpino Tabira Mendi Kluba.

10:00 Mañaria ibaiaren garbiketa. Hasiera: Pinondo parkean.

12:00 56. Umeen Euskal Jaia. Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren alardea Ezkurdi plazan. Euria bada, Landako Gunean. Ant.: Tronperri Dantza Taldea eta Txorixtu Alai Dantza Taldea.

 **clínicadental hartzklinika**
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA · ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA · ODONTOPEDIATRIA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA · HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Ayarra 1949**

Instagram: [pasteleria_ayarra_1949](https://www.instagram.com/pasteleria_ayarra_1949)
Luis Urrangoetxea, 11. Zornotza
Tel: 94 673 02 42
Montevideo, 10. Durango
Tel: 94 403 54 19

Ondo pasa jaietan!



 **AMAYA**
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

ofizinako telefonoa: 682296161
tallerreko telefonoa: 646762022
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

 **oski barefoot**

BAREFOOT OINETAKOETAN ESPEZIALIZATUTAKO DURANGALDEKO DENDA BAKARRA

Zeharkalea 6 behea Udaletxe ondoan
DURANGO
[@oski_barefoot](https://www.instagram.com/oski_barefoot) · 613 047 247





lazko txupinazoaren edizioko irudi bat. UNAI OLASO

160 ekitalditik gorako jai egitarau oparoa

Urriaren 10ean hasiko dituzte Durangoko jaiak ofizialki, San Fausto auzo elkarteak txupinazoa jaurtita. Txosnaguneko suziria gaztetxeko kideek jaurtiko dute

E.H. DURANGO

Sanfaustoak ate joka daude, herriko txoko eta bazterrak jai giroz bustitzeko. Edizio honetan, San Fausto auzo elkarteak kideek jaurtiko dute txupinazoa, urriaren 10ean. Udalak eta jai batzordeak 160 ekitaldi baino gehiago batu dituzte sanfaustoetako egitaraua. Musikari dagokionez, kontzertu handiak aurreikusi dituzte; Bulegok dantzan ipiniko ditu Ezkurdiko eszenatoki aldeira doazenak, eta beste horrenbeste egingo du Gatibuk bere agur birako emanaldietariko bat Durangon eginda. Gazte Foroan antolaturiko gaualdia ere izango dute zain gazteek; han Kaparrak, Sukena, DJ Kene eta Play it! taldeek mugituko dute gazteria, baita Ezkurdiko eszenatokira igoko diren musika jartzaile durangar bik ere: Gorka Perezek eta Sergio Torrabok.

Palestina gogoan

Txosnaguneara dena prestatzen dabilta jaietan egitarau oparoa eta erakargarria eskaintzeko. Baina jaietan ere ez da aldarrikapenik faltako. Hartara, urriaren 12an Palestinagazko elkar-

tasun eguna egingo dute. Eta ez hori bakarrik. Iragarri dutenez, "Israelegaz hartu-eman duten enpresen produkturik ez erabiltzea" erabaki du txosna batzordeak, eta hori horrela izan dadin lan egingo du "hurrengo urteetan ere". Bestalde, jai herrikoiak eta parte hartzaileak antolatzeko egindako lana azpimarratu dute. Horren lekuko dira, besteak beste, gazte eguna, paella txapelketa, erreka jaitsiera, tortilla txapelketa eta Etxera eguna. Mozorro egunean ipuinak eta kondairak izango dituzte ardatz, eta musika eskaintzan Odei, Streetwise, Zeker, Nekktar, Maruxak, Bart Sax, Akerbeltz, Euskoprincess eta Tatta&Dens taldeen emanaldiak batu dituzte, besteak beste.

Txosnaguneko giroa urriaren 10ean berotuko da, Pantxikeren etorreragaz. Txosnaguneko ikurak 19:30ean hasiko du Santa Anatik txosnagunerako kalejira, eragileetako kideek babestuta. Behin txosnagunera ailegatuta, gaztetxeko kideek jaurtiko dute suziria, "azken urte honetako borroka" aldarrikatzeko.

Jai zoriontsuak!

SAN FAUSTO 2025

Azken fasea, lanetan.

Azken atikoak SAN ROKE BARRIAN.
Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak.

- 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.
- Ingurune berri eta berde batean zure neurriko etxea sortzeko gunea.
- Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

SALMENTA BULEGOA: Asbiki Kalea, 1. Durango

sukia.com 946 462 041

sukia
Zure etxean zaudu. Estás en tu casa.

Jesuitak Durango

Ate irekiak urte osoan

BANAKAKO BISITAK
Eskatu zure hitzordua:
94 681 00 50 edo
sanjose@durangojesuitak.org
(0 urtetik 18 urtera)

www.durangojesuitak.org •

Musika eskaintza



Gatibu.



Bulego.



Maruxak.



Odei.



Sol Band.



Zeker.

enpresa-bilera
ospakizunak
urtebetetze
jaunartze
bataio

**DURANGON
ORDUKAKO
TXOKO ALOKAIRUA**

688 861 975
zuretxokoa@gmail.com

**ZURE
txokoa**

www.zuretxokoa.com

Komertakale 23 bitxia, 5. oin. - 48.200 Durango - (BAZKANA)

A. Urreta
pedagogoa

**Ainara
Urreta
Jainaga**

Oinetako patologiak
Oinaren azterketa
biomekanikoa
Neurrira egindako
plantilak

Herriko gudarien
kalea, 10 behea
DURANGO

Tel.: 946 215 404

ANELAN
LAN BERTIKALAK

**ERAIKINEN
REHABILITAZIOA
ALTUERAKO
SEGURTASUNA**

BIZKAIA / NAFARROA
94 803 11 74 / 616 413 660
info@anelan.pro

DEITU ETA GALDETU
KONPROMISORIK GABE

ARGOLABE

Joxemiel Barandiaran 8A,1C 48200 Durango

946814495 - 618068747 - 650397007

promotora@argolabe.eus

www.promotoraargolabe.com

www.tabiracolor.com

**TABIRA
COLOR**

Urbitearte Ind., 2, Abadiño
Frente a Eroski

94 621 79 11

PINTURAK

PINTURA DENDA

Astelehenetik ostiralera
De 8.00 a 13.15
De 15.00 a 19.00
Zapatuetan
De 9.00 a 13.00

1955an sortua
GALLASTEGI
harategiak

ZALDIBAR
Zalduasolo, 8
946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz Zumardia, 1
946 812 247

gallastegiharategiak.eus

"Elkartearen sortzaileek ez zuten imajinatzen 50 urteren buruan txupinazoa jaurtiko genuela"

GORKA PEREZ ETA JUAN LUIS MADARIAGA SAN FAUSTO AUZO ELKARTEKO KIDEAK San Fausto auzo elkarteak irakurriko dute Durangoko jaiei hasiera emango dien pregoia eta jaurtiko dute txupinazoa, urriaren 10ean, 19:00etan

Aritz Maldonado DURANGO

Beste urte batez, San Fausto auzo elkarteak kide eta auzotarrak urdinez koloreztatuko dute Durangoko udaletxeko plaza jaietako hasiera ekitaldian. Aurretik, baina, balkoiean eta plazan ez ezik balkoian bertan ere ikusiko dira kamiseta urdinak. Izan ere, San Fausto auzo elkarteak kideak irakurriko dute jaiei hasiera emango dien pregoia. Lan handiko egunak izaten ari

dira elkarteak kideetat, baina eurretari bik, Gorka Perezek eta Juan Luis Madariagak, tartetxo bat hartu dute ANBOTO-gaz berba egiteko. Biak ala biak hamarkada bat baino gehiagoz dira auzo elkarteak kideak. Urduri daudela esan dute, baina pozik, pregoia irakurtzeak elkartearen jarduna aitortzen duelakoan. Jai batzordearen proposamena hirugarrenean lortu dute gauzatzea, elkartearen

50. urteurrenean, hain zuzen ere. Elkartea osasuntsu dago, 250 bat bazkideguz.

Zelan hartu duzue proposamena?

Gorka Perez: Oso pozik eta esker onez. Hirugarren aldia zen San Fausto auzo elkartearen izena proposatzen zena. Lehenengo bietan ez, baina hirugarrenean ia aho batez irabazi genuen bozketa. Sinistu ezinik geratu ginen. Gainera, elkartearen 50. urteurrenean izateak

bereziago egingo du. Auzoari ikusgarritasuna emateko beste modu bat ere bada eta jendea asko poztu da. Kanean ezagutu egiten gaituzte, ez auzoan bakarrik, eta agurtzera hurbiltzen dira batzuk. Bestalde, elkartearen jardura aitortzeko modu bat ere bada. Azken finean, ez ditugu jaiak edo ospakizunak bakarrik antolatzen. Valentziako DANA-ren harira, adibidez, beharrezkoa zen material bilketa egin genuen gero hara bidaltzeko, eta jende askok parte hartu zuen.

Juan Luis Madariaga: Elkartea sortu zen garaiko kideei esanez gero 50 urteren ondoren Durangoko udaletxeko balkoian egongo zirela pregoia irakurtzen, ez zuten sinistuko!

50 urte ez dira gutxi auzo elkarte batentzat.

G.P.: Auzo hobe baten alde lan egiten dugu. Udalagaz ondo kontontzen gara, baina geurea eskatzen dugu. Durango hobe baten alde ere lan egiten dugu, jakina. Beharrezana duenari lagundu egiten diogu, eta guri ere lagundu izan digute, Kapitanenaren kontuagaz, esate baterako. Bihar udaletxera joan behar dugu [mar-



Gorka Perez eta Juan Luis Madariaga, San Fausto auzo elkartearen kideak.

**"PREGOIA
IRAKURTZERAKOAN
LASAIAGO EGONGO
GARA BEHEAN MAREA
URDINA IKUSITA"**



ARRIBIDE

GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com
arribide.com

946 818 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA





bed's

Atsedunik onena zure ondoan



Bed's Durango
C/ de Alaitz, 1 | 944 005 980

Koltxoak, oinarriak, burkoak eta askoz gehiago atsedeneren marka onenetar:

galea DULTEX **bed's** **TEMPUR**

DURANGO HIZ KUN TZA ESKOLA OFIZIALA

ZIURTAGIRI OFIZIALA

Deutsch · English · Euskara · Français

MATRIKULA ZABALIK
(geratzen diren plazaik bete arte)

Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net · 944 288 310
www.eoldurangoehezkuntza.net

EMAN IZENA
72,36€






DESQUACES PILASTRA

Fauste auzoa 18, Iurreta
Tel: 946 201 787

Ibilgailuak tratatzeko eta deskusatzeko baimendutako zentroa gara.
Desegiteko ibilgailuak erosten eta marka guztietako pieza erabiliak saltzen lan egiten dugu.





etorri da. Elkartea nire gurasoen garaiko jendeak sortu zuen, Gorkaren aitita-amamen garai-koek, pentsa! Auzoa asko aldatu da, bai. Lehen herri bat zirudien eta orain auzo itxura handiagoa du. Auzoa goitik behera aldatu zen orain urte batzuetako berurbanizazioagaz ere.

Marea urdinak bete egingo du plaza.

J.L.M.: Bai. Egia esanda, jendea beti janzten da kolore urdinez, elkarteko kamisetagaz izan zein ez. Bide batez, gogoratu gura dut kamisetak salgai ditugula (barrez). Pregoia irakurtzerakoan lasaia egongo gara behean marea urdina ikusten badugu.

Urduri zaudete?

J.L.M.: Bai, eta geroago eta urduriago, gainera. Durangoko jaiak garrantzitsuak dira, zer esanik ez San Fausto auzoan. Jendeak ondo pasatzea gura dugu. Urteak daramatzat auzoan bizitzen, eta ezagutu izan ditut jaiak herritarrak auzotik irten ez direnak. Txikia nintzenean inortxo ere ez zen joaten auzotik. Erromeriak bertan izaten genituen, adibidez.

G.P.: Urte batzuetan ez da ezer egon, baina horri buelta ematea lortu da. Gurea auzo bizia da eta oso gogoko dut hori. Auzoek bizitza behar dute, ez jaietan bakarrik, baita egunerokoan ere. Hemen, adibidez, jendeak babestu egiten gaitu, ondo erantzuten du. Denerik antolatzen dugu, txitxi-burduntzia, gaztaina-jana, udako jaia eta Sanjoanak, kasurako, eta auzotarrek primeran erantzuten dute beti. Hori eskertzekoa da, beharrezkoa delako gauza gehiago antolatzen jarraitzeko.

Idatzi duzue pregoia?

J.L.M.: Bai, baina azken egunera arte ezkutuan izango dugu (barrez).

G.P.: Oso hunkigarria izango dela aurreratu dezakegu. Bai guretzat eta baita beste jende askorentzat ere. Baina festarako dei bat ere izango dela nabarmendu gura dugu; errespetuzko festarako, jakina.

Zelako jaiak izango dira aurtengoak?

G.P.: Oso bereziak. Guk geuk beste modu batera biziko ditugu, auzoko ekitaldietan ez ezik Durangokoetan ere parte hartuko dugulako; adibidez, artopil banaketan eta adinekoen bazkarian.

titzenean egin zen elkarriketa], eta aurrekoan beste elkarriketa bat egin behar izan genuen. Horrela gabiltza elkartekideok azken egunotan. Hala ere, inguruan ere jende asko dugu laguntzen. Baina jaietan gauza asko

egin behar da eta edozein laguntza ondo etorria izango da.

J.L.M.: Bai, garrantzitsu ikusten dugu jendearen inplikazioa eskertzea. Paella janerako, adibidez, 600 aulki ipini behar ditugu; ez da lan erraza, baina

bazkideak ez direnek ere erantzuten dute. San Fausto beti izan da oso auzotarra, denok elkar ezagutzen dugu.

Auzoa aldatu egin da urteotan.

J.L.M.: Azken urteotan asko hazi da, bizilagun berri asko

NEVERS
IKASTETXEA

Gora San Fausto jaixek

Bruna Mauricio Zabala Kalea, 6
48200 Durango, Bizkaia

neversikastetxea.com 946 81 09 46 @neversikastetxea

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatía

Muruetalorre, 2D - 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

RFS: 57/16

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

gozatu San Fausto jaiak!

946 201 663 • gozatugozotegia.com

PABILIOIA SALGAI
Iurretan, Mercedona ondoan
1.190m²

Tel: 94.681.66.73 • Mug: 649 40 26 23 • zarateylexpe.com

tabiraberezi
Telekomunikazioak Informatika

Pol. Ind. Aliendalde 11F
48200 Durango
94 681 22 04

info@tabiraberezi.com
www.tabiraberezi.com



Nevers ikastetxeko ikasle batzuk, jaietako aurkezpen egunean.

"Neversen irrikan gaude txupinazoa jaurtitzeko"

Aurten Nevers ikastetxeko ikasleek jaurtiko dute txupinazo txikia. Urriaren 12an izango da, 12:30ean, udaletxean. Aurretik, 12:00etan, txupinero txikiek kalejira egingo dute Ezkurditik udaletxera Patxikotxugaz batera. Herriarrei bertaratzeko deia egin diete

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Astebete pasatxo besterik ez da geratzen txupinero txikiek udaletxeko balkoira igo eta suziria jaurtitzeko. Aurten, Nevers ikastetxeko ikasleek izango dute berau jaurtitzeko ohorea eta euren aurpegiak ilusio horren isla dira. "Irrikan gaude Durangoko jaiak heltzeko eta txupinazoa jaurtitzeko. Irakasleoi ilusioa egiten digu, eta ikasleei zer esanik ez. Desiratzen gaude eguna heltzeko. Oso pozik daukugu udaletxeko balkoira igo eta jaiak hasiera emateko", adierazi du Jon Carracedo Nevers ikastetxeko zuzendariak.

Hasieratik ikastetxean argi izan dute ez dutela gura urriaren 12koa ikasle bakar batzuen kontua izaterik. "Oraindino ez dakigu txupineroak nortzuk izango diren, erabakitzen dugu. Ikasle batzuk jaietako aurkezpena joan ziren eta besteren batzuek pregoia irakurriko dute", gehitu du Carracedok.

Eta orain horixe egiten dabil, azken kontuak lotu eta pregoian esan behar dutena zehazten. "Euren ideiak partekatzen aukera eman diegu ikasleei, eta

denon artean osatuko dugu pregoia. Argi dago testuan gure ikastetxea eta bertako proiektuak agertuko direla. Baina jaietako prentsaurrekoan esan genuen moduan, denon eskubideon alde gaudela eta egon behar dugula aldarrikatuko dugu, eta errespetuz eta jai giroan ibiltzeko deia ere egingo diegu durangarrei eta Durangora bertaratzen direnei, gure ustez pregoiak herriari bideratutakoa izan behar du eta", nabarmendu du ikastetxeko zuzendariak.

Bestalde, Jon Carracedok urriaren 12an udaletxeko plazara bertaratzeko deia egin die Nevers ikastetxeko ikasle, guraso eta familiarreko guztiei. "Nevers osatzen dugun familia osoa udaletxeko plazan egotea espero dugu, eta baita gainerako herriar guztiak ere, jakina", amaitu du zuzendariak.

**"ERRESPETUZ
ETA JAI GIROAN
IBILTZEKO DEIA
EGINGO DUGU"**

jazz solutions

lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza
barne diseinua
kudeaketa bisuala
lan guneak

Durango Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

94 621 59 64
www.jazzsolutions.es

REA:15/48/001/7057
CZ: 0544-BI

MARKIEGI
ELEKTRIZITATEA - ARGIZTAPENA

Tabira, 3 DURANGO
946 203 520
markiegi@markiegi.com
markiegi.com

ALKI
DEKORAZIOA ETA ERREFORMA INTEGRALA

Mikeldi, 6 DURANGO
94 681 38 95 • 679 097 744 • alki@interioresalki.com
www.interioresalki.com

DURANGO ARGOAK **La Pajarita**

Askatasun Etorbidea, 9 DURANGO | Telf. 94 640 88 20
info@durangomargoak.com | www.durangomargoak.com

"Elkartasun eta ospakizun giroa irudikatu gura izan dut"

ENDIKA MADINABEITIA LARRAÑAGA DISEINATZAILEA

Sanfausto jaietako kartel lehiaketaren irabazleak diseinu eta sorkuntza ikasketak amaitu berri ditu EHU; ilustrazioa eta lan digitala uztartuta borobildu du lana

Jone Guenetxea DURANGO

Patxikotxu eta Pantxike jaiei begira ikusten ditugu Endika Madinabeitiaren (Durango, 2003) jaietako kartel irabazlean. Sanfaustoak ate joka ditugu eta gazte durangarraren sorkuntzak hurrengo egunetan sortuko den jai giroa islatzen du.

Berezia da norberaren herriko jaiak iragarriko dituen kartela egitea?

Bat-batean norberak sorturiko zoezer jaietan ikusteak ilusio handia egiten du.

Zer islatu gura izan duzu kartel honetan?

Elkartasun eta ospakizun giroa irudikatu gura izan dut. Durangoko jaietako figura protagonista biak goiko aldean ipini ditut,



Endika Madinabeitia.

gure kaleetan sortzen den giroari begira.

Zein teknika erabili duzu?

Hasieran, ilustrazioak paperean egin nituen, modu tradizional batean, eta gero eskaneatu egin nituen. Kolorea digitalki sartu nuen. Lan bat modu digitalean egiten dudun lehenengo aldia izan da. Esperientzia polita izan da.

Denbora asko behar izan zenuen? Ideia pentsatzeak eramaten du denborarik gehien, baina, gutxira, lau bat egun emango nituen kartela diseinatzeko.

Durangarra izanda, zer suposatzen dute jaiak zuretzat?

Urteko momentu seinalatu bat da, familiagaz eta lagunekin batzekoa. Ospatzeko momentu bat da.

Kartel lehiaketa bat irabazten duzun lehenengo aldia da?

Bigarrenaz aurkeztu naiz Durangon. Aurten ez nuen asmorik aurkezteko, baina azkenengo egunetan lehiaketa hor zegoela gogorarazi zidan amak eta animatu egin nintzen.

Diseinu arloan zabilta?

Diseinu eta sorkuntzako karreara amaitu berri dut EHU. Orain Hezkuntzako Masterra ikasten

nabil, irakasle izateko. Horrez gainera, muralak eta pinturaren arloko lanak egiten nabil batez ere.

Non ikusi ditzakegu zuk sorturiko muralak?

Muralak Palentzian egin ditut batez ere. Herri txikiak giroa islatzen dute, horma handietan. Durangaldean, Basoarte arrandegiko pertsiana, esate baterako, nirea da. Enkarguz egiten ditut.

Diseinu eta artearen munduan zein arlotan sentitzen zara eroso?

Momentu honetan gehiago betetzen nau pinturaren munduak, eta horretan nabil diseinuan baino gehiago. Baina ikasi diseinua ikasi dut, eta, beraz, bien artean nago. Ilustrazioa eta komikigintza ere gustuko ditut.

Jaietako zein ekitalditan parte hartzen duzu?

Tortilla lehiaketan parte hartzen ahalegintzen gara, eta, batez ere, kalean sortzen den giroa gustuko dut. Mozorrotu ere egiten gara kuadrillan. Zoezer pentsatu dugu, baina beti ibiltzen gara azken momentuan.

Zer desio diezu herrikideei jaietan?

Denon artean jaiak disfrutatzea eta jai politik izatea.

EZ DA INOLAKO JARRERA EDO ERASO SEXISTA LGTBIQ+FOBIKO ZEIN ARRAZISTARIK ONARTUKO.

DURANGOKO TXOSNA BATZORDEA
JAIK HERRITIK ETA HERRIAREN TZAT

URRIAK 10, BARIKUA

19:30 / KALEJIRA
GAUTXORI
Santa Anatik Txosnagunera
21:00 / TXUPINAZOA
TXOSNAGUNEAN
Gaztetxearen eskutik
21:00 / KONTZERTUAK
REDER
NEKKTAR
ZEKER
DJ USU eta IPI

URRIAK 11, ZAPATUA
GAZTE EGUNA

12:00 / KAMISETA BANAKETA
Gaztetxean
15:00 / GAZTE BAZKARIA
16:00 GAZTE JOLASAK
17:00 / KARRO POTEKO KUIR-A!
Pinondotik
18:00 / MAUXITXA TXARANGA
Txosnagunetik
22:00 / KONTZERTUAK
EUSKOPRINCESS
TATTA & DENSO
LA FULANA

URRIAK 12, DOMEKA
PALESTINAREKIN ELKARTASUN EGUNA

13:00 / MARIANITADA +
UMEENTZAKO JOLASAK
15:00 / ELKARTASUN BAZKARIA
Ostean elkartasun argazkia
16:30 /
KONTZERTUA/ERREZITALDIA
SOL BAND
17:30 / MOBILIZAZIOA
19:00 / KONTZERTUA
BART...SAX!
20:30 DJ MARATOI HERRIKOIA
Gaztetxetik Txosnagunera

URRIAK 13, ASTELEHENA
SAN FAUSTO EGUNA

12:00 / PAELLA TXAPELKETA
13:00 IKUSKIZUNA
Ume eta familientzako
THOR MAGOA
14:30 / PAELLEN
AURKEZPENA
Ostean sari banaketa
17:00 / ERREKA JEITSIERA
Tabiratik + ostean luntxa

URRIAK 17, BARIKUA

18:30 / TORTILLA TXAPELKETA
Bitartean kaje jolasa
20:00 / TORTILLEN
AURKEZPENA
Ostean sari banaketa
22:00 / KONTZERTUAK
ØDEI
STREETWISE
LES TESTARUDES

URRIAK 18, ZAPATUA
MOZORRO ETA ETXERA EGUNA

15:00 / ELKARTASUN
BAZKARIA
16:00 / KONTZERTUAK:
HETXI eta ALAIN
20:00 / MOZORRO DESFILEA
21:30 / KONTZERTUAK
MARUXAK
AKERBELTZ

Ekaitz Herrera DURANGO

Kaletik Gaztetxera dinamikaren bueltan batu ziren lehenengo, eta hainbat ekitaldi antolatu zuten herriko kale zein tabernetan. Correos zaharra okupatu zuten gero, eta Montorretako marmol-lantegia hartu zuten azkenik, ekainaren erdialdean. Durangoko gaztetxea bertan dago harrezkero. Orain, sanfaustoetan, gaztetxearen aldarria kaleratuko dute jaez gozatu bitartean.

Gaztetxeak botako du txosnetako txapligua. Zelan jaso duzue proposamena?

Ander Sarriugarte: Txupinazoa gaztetxeak botatzea orain arte egindako borrokari egindako aitortza da. Hainbat ahalegin egin dugu gaztetxea lortu arte, eta uste dugu ibilbide horri egindako errekonozimendua dela. Ilusio handiagaz jaso dugu txupinazoa botatzeko proposamena. Ilusioz eta aukera modura, gaztetxearen aldarria herrira zabaltzea ahalbidetuko digulako. **'Kaletik Gaztetxera' dinamikak hilabete luzeak daramatza martxan. Zelan baloratzen duzue orain arteko ibilbidea?**

"Gaztetxea Durangoko hainbat hutsune betetzera dator"

ANDER SARRIUGARTE ETA OLATZ GORROTXATEGI DURANGOKO GAZTETXEKO KIDEAK
Aurten, gaztetxeko kideek izango dute txosnaguneko txapligua botatzeko ohorea. Sarriugarte eta Gorrotxategi prest daude jaez gozatzeko eta gaztetxea herriratzeko

A.S.: Urte osoko borrokaren garrantzia azpimarratu gura dugu, horrek ekarri gaituelako hona, eta hori durangarren eta gazteen babesagaz lortu dugula-

ko. Eta epaiketetan Defentsa Komunitateak eskaintako babesa eskertzen dugu. Hemendik aurrera, gaztetxea martxan dela, proiektua gorpuzten joango gara.

Izan ere, epaiketa bat izan dugu espazio honegaz lotuta, eta arriskuak hor jarraitzen du; gure etorkizuna ezjakina da hemen. Horregaitik da inportantea bi-

lakaera horretan proiektuari indarra ematea, proposamene-tara hurreratzea, proiektua herrian zilegiztatzea.

Ekainaren erdialdean Montorretako marmol-lantegi zaharra okupatu zenuten eta gaztetxea bertan dago harrezkero. Zein proposamen garatu duzue bertan?

Olatz Gorrotxategi: Hainbat egitarau antolatu dugu. Kirola-gaz loturikoak izan dira batzuk. Mendi lasterketa, eskalada eta erreka jaitsiera, adibidez. Bestalde, arteari loturiko lantalde bat ere badago gure artean, eta aisialdiari loturiko hainbat ekintza sortu da hortik. Horrez gainera, Palestinaren aldeko berbaldia antolatu dugu. Azken finean, adar askoko proiektuak ditugu, eta gaztetxeak horiei guztiei erantzuten die.

A.S.: Horrez gainera, aipatzekoa da Durangon geroago eta sarbide mugatuagoa dagoela kirol eta aisialdi eskaintzetara. Gure balibide ekonomikoak direla-eta, eskaintza horretatik kanpora geratzen gara, eta gaztetxeak aisialdi, kultur eta kirol eskaintza bat bermatzen digu.

O.G.: Interes kapitalistetatik



Tortilletan espezializatuak.
18 mota desberdin.

*Zatoz eta proba itzazu!
Gozatu jaietan!*

Txibitena, 9 bajo C
Tel.: 602 387 814
48200 Durango

ZERO

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetako afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.

Andra Mari, 6 Durango
Tel.: 946 812 222

herria
taberna

Ondo pasau jaietan!

Askatasun etorbidea, 28
Tel.: 946 810 513

LOTERIAK PRENTSA **barik**

IKERFER

Ermodo, 25 behea Durango
Tel.: 946 810 566

MESOI BARRIA

Tel.: 946 030 341

NACEX

INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000
nacex.es

Mezularitza-enpresa
Paketeak prezio eskuragarrietan bidaltzen ditugu. Kontsultatu konpromisorik gabe.

San Roke, 10-12 etxebaia DURANGO
Tel.: 946 200 162
e-maila:4810.operativa@nacex.es

haragoko proposamenez gainera, erasorik bako eremua ere eskaintzen dugu, baita politizazio-rako eremu bat ere. Gaztetxea Durangoko hainbat hutsune betetzera dator.

'Kaletik Gaztetxera' ekimenak behin baino gehiagotan interpelatu du udala bere ibilbidean zehar. Zein puntutan daude udalagazko hartu-emanak?

O.G.: Gaur egun ez daukagu hartu-emanik. Sorginolatik honako bidean, udalak etenik barrik oztopatu eta eraso egin dio gure jardunari, eta ez dio gaztetxe faltari irtenbiderik eskaini. Egingarriak ez diren proposamenak ere egin ditu, Galtzarretako etxearena, adibidez. Proposamen hura aurpegia zuzitzeko erabili zuela ulertzen dugu. Orain horregaitik jo dugu udalarena ez den eraikin batera, urte luzez hutsik egon den eraikina. Kasu honetan, jabe pribatuak ditu eraikinak.

Baduzue hartu-emanik Montorretako lantegiko jabeekin?

O.G.: Hainbat jabe dira eta eurentariko gutxi batzuek elkarriketarako borondate ona agertu dute. Zoritzarrez, gu-



Ander Sarriugarte eta Olatz Gorrotxategi gaztetxearen aurrean.

txiengoa dira. Izan ere, denontzat irtenbide onuragarria lortzen ahalegindu gara jabeekin, ados jartzen, baina gehien-goak ateak itxi dizkio elkarriketari. Hala ere, epaiketen gainetik, elkarriketa baterako

beharrizana dagoela uste dugu eta gu prest gaude bide horri ekiteko.

Txosnetako txupinazoa bota eta gero, zelan gozatzeko duzue jaiez?

A.S.: Txupinazoa bota baino lehenago kirol txapelketak mar-

txan ipiniko ditugu, eta horien finalak gazte egunean jokatzeko ditugu. Gazte egunean, gaztetxean, txosnetan eta kalean egongo gara bazkari, jolas eta txaranga artean. Egun hori gaztetxearen aldeko aldarritz

betetzen ahaleginduko gara. Era berean, Palestinaren aldeko bazkarian izango gara, eta DJ maratoi ibiltaria ere egingo dugu, gaztetxetik hasita. Erreka jaitsieran egongo gara, baita txosnetako mozorro desfilean ere. Horrez gainera, sorpresa bat izango dugu gaztetxean. Azkenik, hainbat ardura hartuko dugu txosnagunean.

Pregoa prest duzue? Zer adieraziko duzue bertan?

O.G.: Batetik, Durangon gaztetxea behar dela azpimarratzeko dugu, eta, bestetik, gaztetxearen alde gazte ugari dagoela ikusaraziko dugu. Era berean, gure proiektua azaltzeko eta aldarrikatzeko modu bat izango da txupinazoa.

Baduzue mezurik irakurleentzat?

A.S.: Gaztetxeak ateak zabalik izango ditu jaietan zehar, baita jaien aurretik eta ondoren ere. Eta gaztetxea defendatzeko erarik onena gazteentzat eskaintza alternatiboak sortzea eta gazteek eskaintza horietan parte hartzea da.

O.G.: Horrez gainera, gaztetxearen aldeko borrokara batzera deitzen dugu.

IBAIZABAL

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak

Ibaizabal auzunea, 2
DURANGO
Tel.: 946.550.185

KIXO

Fray Juan de Zumarraga, 1
DURANGO

ASADOR BOTAFUMEIRO

DESDE 1997

AMALUR

etxeako kriston gildak

Etxeko berezitasunak: gildak, pintxoak eta bermutak.

Barrenkale 19, Amalur 2
692 150 199

UNAI GARAY

ITURGINTZA • BEROGINTZA • GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

DURANGOKO JAIJETA JAN, EDAN ETA GOZATZEKO LEKU APROPSA!

Gora sanfaustoak!

TEL: 946 216 372 • @GORAKORAKAFA

"Publikoagaz konektatzea da garrantzitsuena"

GORKA PEREZ ETA SERGIO TORRADO DJ ETA MUSIKARIAK

DJ durangar biek zuzeneko emango dute jaien barruan. Urriaren 12an izango da, 21:00etan, Ezkurdi plazan. Ilusio berezia egiten dien kontzertua da

Joseba Derteano DURANGO

Gorka Perez Ignacio (Durango, 2000) eta Sergio Torrado Yañez (Durango, 2003) prest daude jaietan dena emateko. Adin guztientzako musika ipiniko dutela diote.

Zer aurkituko du zuen kontzertura doanak?

Sergio Torrado: Musika anitza eta animazio handia aurkituko ditu. Adin guztietako jendearentzat ipiniko dugu musika, denak sentitu daitezen jaiko parte dira.

Gorka Perez: Ez gara reggae-toira edo 20 urtekoentzako musikara mugatuko. Pot-pourri bat izango da. Denak ipini gura ditugu dantzan.



Gorka Perez eta Sergio Torrado, San Agustin kulturguneko atarian.

DJ kontzertu batek zer osagai behar ditu ona izateko?

S.T.: Publikoagaz konektatzea da garrantzitsuena.

G.P.: Bai, ezinbestekoa da mikrofonoaren bitartez publikoari zoezer transmititzea.

S.T.: Eta guk ondo pasatzea. Jendeak ikusten badu gu ondo pasatzen gabiltzala konexio berezia sortuko da.

Zelan hasi zineten DJ lanetan?

S.T.: Hemen bizi arren, galiziarra naiz eta han hasi nintzen. Lehen-gusuaren nahasketa-mahaiak nire arreta erakarri zuen. Zenbat botoi zeukan! Horrek txinparta piztu zuen nigan. Nire herriko gabon zahar gauean eman nuen lehenengo kontzertua. Durangaldean Sweet&Vicious-en egin nuen estreinaldia.

G.P.: Botoidun tramankuluek beti erakarri dute nire arreta. Kurutziaga Ikastolan ikasleen irrati saio bat zegoen eta han hasi nintzen aurkezle irratiko mahai batez. Gero, 18 urteaz lortu nuen nire lehenengo DJ mahaia, eta horretan nabil gaur egun ere. Inauterietan Andra Mariko elizpean egiten den DJ jaialdian bi-hiru bider parte hartu dut.

Zelan ikusten duzue DJ panorama eskualdean?

S.T./G.P.: DJ harrobi ona dago. Geroago eta gehiago eta hobeak daude.

Zer erreferente duzue DJ munduan?

G.P.: Ez dut erreferenterik izan, baina ikusi dut jendeak zer egiten zuen; esaterako, Martin Garrix herbeheretarrak egiten zuena.

S.T.: Nire kasuan, Alvama Ice. Eta eskualdean, Gorka. Hiru urte nagusiagoa da eta erreferente izan dut.

G.P.: Azken batean, eskualdean reggaetoiko lehenengotariko DJa izan nintzen.

Non amesten duzue kontzertu bat ematea?

S.T.: Galiziako Pelicano salan.

G.P.: Nire kasuan, Ibizako Ushuaian. Edo famatua den diskoteka batean. Itzela litzateke.

S.T.: Hasieran BEC esan behar nizan, baina laster beteko dut amets hori, urrian hango jaialdi batean parte hartuko dut eta. Aukera ederra da.

G.P.: Nik Iruñeko Carpa Unibertsitarian parte hartuko dut, urriaren 24an. 10.000 lagun batzea itxaroten da.



Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera



Eskaneatu QR kodea

Izan zaitetz berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 3

ABADIÑO Erakusketa
'Ella' (Liza Szatola). Solasaldia, 19:00etan.
Errota kultur etxean, urriaren 5era arte.

ABADIÑO Erakusketa
'Naturari so. Una mirada a la naturaleza'. Durangaldeko Artisten Elkarteko talde erakusketa.
Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra arte.

DURANGO Erakusketa
Durango Uria XXV. Pintura Lehiaketara aurkeztutako lanak.
Ezkurdi aretoan, urriaren 13ra arte.

DURANGO Erakusketa
'Goren Sakona' (Ros Boisier).
Arte eta Historia museoa, azaroaren 16ra arte.

DURANGO Erakusketa
'Andra Mariko elizpea. Durangoko bihotza'. Ondare Jardunaldiak.
Arte eta Historia Museoa, azaroaren 16ra arte.

ELORRIO Erakusketa
Elorrioko Argazki Taldekoen lanak.
Iturri kultur etxean, urriaren 24ra arte.

IURRETA Kontzertua
William (Los Brazos).
Korta tabernan, 19:30ean.

ZORNOTZA Erakusketa
'la zu zinen' (Sofia Mendiando, Hodei Herreros eta Argiñe Ceballos).
Zelaieta zentroan, urriaren 9ra arte.

ZAPATUA 4

BERRIZ Antzerkia
'Itzulera' (Dejabu konpainia).
Kultur Etxean, 19:00etan.

DURANGO Erromeria
Bizkaiko Erromeria Eguna.
Landako Gunean, 10:00etan hasita.

ELORRIO Bisita gidatua
'Zenita berdea' (izen ematea: turismoa@elorrio.eus / 688 77 62 70).
Turismo Bulegoan, 11:00etan (euskaraz) eta 12:30ean (gaztelaniaz).

IURRETA Bizikleta irteera
Mutrikura irteera. Iurreta Txirrindulari Elkartea.
Iurretan, 09:00etan.

DOMEKA 5

ABADIÑO Kontzertua
Niña Coyote eta Chico Tornado.
Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.

ABADIÑO Bisita gidatua
Muntsaratz Dorretxera bisita.
Ondarearen Europako Jardunaldiak (izen ematea: www.ondarea.eus)
Muntsaratz Dorretxean (11:00-12:30).

ABADIÑO Antzerkia
'La Kermes del vermu' (Gorakada Teatro).
Pinoko plazan, 13:00ean.

DURANGO Antzerkia
'¿Dónde están los niños?' (Tartean Teatro).
San Agustín kulturgunean, 19:00etan.

ELORRIO Bisita gidatua
'Argiñeta' (izen ematea: 688 77 62 70 / turismoa@elorrio.eus).
Argiñetan, 11:00etan (euskaraz) eta 12:00etan (gaztelaniaz).

IURRETA Bizikleta irteera
Arrigorriaga. Txirrindulari Elkartea.
Iurretan, 09:00etan.

ZALDIBAR Inertzia Eguna
Goitibehera tailerra, udaletxeko plazan (11:00-13:00). Gero, Goitibehera txikia (Aldatsa elkarte eta Gaztelekua).
Hiru Gurutzeetan (16:00-19:00).

EGUENA 9

ABADIÑO Kontzertua
Ekiza.
Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.

BARIKUA 10

ELORRIO Antzerkia
'Arizona' (Txalo Produksioak).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETAKO JAIAK

URRIAK 3

17:00 - 19:00 Ume jolasak eta Maiztegiko ikasleen dantza erakustaldia, plazan.

19:30 El Reciclador, Dantzaria plazan.

Iluntzean Tortilla txapelketa, kaskoan.

20:30 Tortillen aurkezpena.

21:00 Kontzertua, Askondon: Alarma Morea.

22:30 Bertso saioa:



Iurreta Musika
Luhartzen erromeria.
Plazan, 22:45etan

Ametz Arzallus, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga. Gai Jartzaila: Ainhoa Urien. Kepa Arroita jauregi frontoian.

23:59 Oilar Baltzak erromeria, plazan.

Ondoren
Malakias MX3 eta DJ Rekal.

URRIAK 4

MOZORRO EGUNA

12:30 Poteoa.

14:30 Marmitako txapelketa, Askondon.

Ondoren, herri bazkaria.

16:30 Kuadrilla ikuskizuna, Askondon.

18:00 Sakatu elektrotxaranga.

21:00-22:00 Luhartz erromeria, plazan.

22:45 Luhartz erromeria.

Ondoren,
MJ Totozer.

URRIAK 5

11:00-14:00 XXV. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, Olaburun.

11:00 Dantzari eta agintarien kalejira, Montoitik plazara.

12:30 Iurretako dantzariak.

Ondoren, Harrijasotzaile gazteen erakustaldia:
Izadi Agirre, Aritz Abendibar, Izei Abendibar eta Unai Burgaña.

18:00 Dantza ikuskizuna. Iurretako dantzariak eta talde gonbidatua: Lurra Dantza Taldea (Urretxu).

Ondoren, jaietako errifen zozketa.

20:00 Herri afaria, plazan.

20:30 Erromeria Lorratz taldeagaz.

22:00 Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuta.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Maspalomas
Domeka 5: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Maspalomas
Barikua 3: 18:00.
Zapateria 4: 19:00.
Domeka 5: 19:30.
Astelehena 6: 17:45.
Martitzena 7: 17:45.

La sospecha de Sofia
Barikua 3: 18:00, 20:30.
Zapateria 4: 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka 5: 17:30, 19:30.
Astelehena 6: 18:00, 20:15.
Martitzena 7: 18:00, 20:15.
Eguaztena 8: 19:00.

The smashing machine
Barikua 3: 18:00, 20:30.
Zapateria 4: 17:00, 19:00, 21:30.
Domeka 5: 19:30.
Astelehena 6: 17:45, 20:15.
Martitzena 7: 17:45, 20:15.
Eguaztena 8: 19:00.

Parecido a un asesinato
Barikua 3: 20:30.
Zapateria 4: 21:30.
Domeka 5: 17:00.
Astelehena 6: 20:15.
Martitzena 7: 20:15.
Eguaztena 8: 19:00.

Sketch. Cuidado con lo que dibujas
Zapateria 4: 17:00.
Domeka 5: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Jone, batzuetan
Zapateria 4: 20:00.
Domeka 5: 20:00.
Astelehena 6: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Una batalla tras otra
Barikua 3: 20:00.
Zapateria 4: 20:00.
Domeka 5: 20:00.
Astelehena 6: 20:15.

Angelo en el bosque misterioso
Zapateria 4: 17:00.
Domeka 5: 17:00.

Scraper (J.B.G.A.)
Martitzena 7: 19:00.

Billiken
Eguaztena 8: 19:00.
Eguena 9: 20:15.



Mendia protagonista duen asteburua Atxondon

MENDI LASTERKETAK Atxondon mendi asteburua egingo dute gaurtik domekara. Zapatuan Anboto Kilometro Bertikala izango da, eta domekan Sorginen Lasterketa. Horregaz batera, mendiari loturiko hainbat ekintza prestatu dute antolatzaileek

Joseba Derteano ATXONDO

Gaur hasi eta domekara bitartean, Atxondoko I Mendi Asteburua osatuko dute Atxondon. Aurten, Sorginen Lasterketa eta Anboto Kilometro Bertikala probak asteburu berean batu dituzte, eta egitaraua beste ekintza batzuekin ere jantzi dute.

Anboto Kilometro Bertikalak 16. aldia egingo du zapatuan. 10:00etan hasiko da, Arrazolan. Parte hartzaileak Anboto mendiko tontorrera igoko dira biderik laburrenetik: 1.092 metroko igoera, 3,8 kilometrotan. Igoerako errekorrak Marco de Gasperi italiarrarenak (37.14) eta Oihana Azkorbebeitia abadiñarrarenak (45.59) dira.

Domekan Sorginen Lasterketak hartuko du testigua, Axpen. Nobedade nagusia hauxe da: lasterketa luzeaz gainera (22 km) laburra ere antolatu dute, lehenengoz: 11,6 km eta 890 metroko desnibela. Biak Euskal Herriko Koparako puntuagarriak



Sorginen Lasterketako parte hartzaileak iazko aldian. LUCIA MERUELO

dira: luzea nagusietan, eta laburra gazte mailetan. Aurten ere Etiketa Berdearen zigilupean lehiatuko dute proba.

Sorginen Lasterketako proba luzea Durangaldeko Koparako puntuagarria izango da. Zortzi

lasterketatik bost joan direnean, gizonetan Ander Jauregi dago lider, 310 puntugaz. Baina 20 puntura bakarrik du Irazu Arranburu iazko lehen aldiko irabazle mallabitarra. Emakumeetan oraindino emozio handiagoa dago.

Nora Narbaiza eta Lola Oyarzabal 270 puntugaz berdinduta daude lehenengo postu bietan. Gainera, Itsasne Urkiaga hirugarrena eta Zutoia Odriozola laugarrena gertu dituzte, 20 eta 50 puntura, hurrenez hurren. Lasterketa honen ondoren, beste bi geratuko dira: Zornotzako Aramotz urriaren 18an, eta Etorrioko Aldapegora urriaren 25ean. Atxondoko Mendi Asteburuko egitaraua ez da lasterketetara mugatuko. Esaterako, berbaldiak eta emanaldiak izango dira. Umeei begira, Zintzilik enpresak tirolina eta ekintza gehiago egingo du.

Furgonetentzako gunea

Egitarau zabalak Atxondon asteburupasa egitera deitzen du. Horrela, antolatzaileek furgoneta eta autokarabanentzako gunea bat egokituko dute Apatako eskolan. Barikuan 17:30ean egongo da erabilgarri. Bertako komunak ere erabili ahal izango dira. Eta lasterketa egunetan, korrikalari eta ikusleentzat doako garraio zerbitzua eskainiko dute gune horretatik Arrazolara zein Axpera.

Zuzenean, ANBOTOn

Lasterketa zuzenean ikusteko aukera izango da, 'anboto.org' webgunean. Oier Ariznabarreta durangarra eta Gontzal Murgotio elorriarra arituko dira aurkezle lanetan eta lasterketaren jarraipena egiten.

Mendi asteburuko egitaraua

Urriak 3, barikua

- **18:30** Berbaldia: Garazi Abasolo. Apatako eskolan
- **19:30** Berbaldia: Itsasne Blanco. Apatako eskolan.

Urriak 4, zapatua

- **08:00-10:00** Doako garraioa furgoneta gunetik Arrazolara.
- **10:00** Anboto Kilometro Bertikala.
- **14:30-15:30** Doako garraioa Arrazolatik furgoneta gunera.
- **16:00-18:30** Umeentzako tirolinak eta ekintza gehiago, Zintzilik enpresaren eskutik. Apatako frontoian.
- **18:30** Mattin Iñiguez parapentelariaren film laburra. Apatako eskolan.

Urriak 5, domeka

- **07:00-08:45** Doako garraioa furgoneta gunetik Axpera.
- **09:00** Sorginen lasterketa, ibilbide luzea.
- **09:30** Sorginen lasterketa, ibilbide laburra.
- **13:45-14:30** Doako garraioa Axpetik furgoneta gunera.

Gaur hasiko da Arroita Jauregiren oroimenezko trinket txapelketa

TRINKETA Munduko txapelketan dominak irabazitako pilotariak arituko dira, buruz buru zein paleta mistoan

J.D. ABADIÑO

Bariku honetan hasiko da Kepa Arroita Jauregiren oroimenezko seigarren txapelketa. Ohikoa den moduan, modalitate bitan jokatu da: paleta goma mistoan eta esku pilotan buruz buru. Txapelketak hainbat osagai du zaleen arreta pizteko. Esaterako, munduko txapelketan brontzeko domina irabazi berri duten Ibai Arroita Jauregi iurretarrak eta David Alonso zornotzarrak parte hartuko dute buruz burukoan. Orain,

osterat, bata bestearen kontra arituko dira.

Txapelketako beste pizgarri bat Manex Etxeberri Pacheco pilotari saratarra da. Antolatzaileak sarritan ahalegindu dira Ipar Euskal Herriko ordezkariak ekartzen, eta aurten lor-

BRONTZKO DOMINA IRABAZI ZUTEN ARROITAJAUREGI ETA ALONSO ELKARREN KONTRA ARITUKO DIRA

tu dute. Bera da irabazteko hautagai nagusia.

Paleta mistoan ere badago zer nabarmendu. Batetik, oraintsu munduko txapelketan urrezko domina irabazi duten Irene Arraztoak eta Paula Gorostia-gak parte hartuko dute. Bestetik, eskualdeak ordezkari bat izango du: Iñigo Arrieta, Durangon bizi den gasteiztarra. Arrietak Maritxu Housset-egaz osatuko du bikotea, iazko txapeldunagaz.

Antolatzaileek beste izen bat ere azpimarratu dute: Agustin Maldonado, Larrabetzun bizi den argentinarra. "Bizkaian ez du aurkaririk, trinketea ez behintzat".

Urriaren 3an eta 10ean final-laurdenak jokatu dira, urriaren 17an eta 24an finalerdiak, eta urriaren 31n finalak.



Mankomunitateko presidente Idoia Otaduy eta Aitor Arabiourrutia, aurkezpenean.

Euskadiko txapelak jokoan Durangoko mendi duatloian

DUATLOIA Durangoko mendi duatloiak hirugarren aldia egingo du zapatu honetan. Euskadiko txapelketa lehiatuko da bertan eta espezialitateko kirolaririk onenak etorriko dira. Ekimenaren harira, umeentzat ekintzak egongo dira zaletasuna bultzatzeko

J.D. DURANGO

Mugarra Triatloi Taldeak antolatuta, zapatu honetan Durangoko mendi duatloia jokatu da Tabira parkean. Bizkaian bakarra den proba honek hirugarren edizioa izango du aurten, eta lehenengoz Euskadiko mendi duatloi txapelketa izango da Euskal Triatloi Federazioaren egutegi ofizialaren barruan.

Jardunaldia 10:00etan hasiko da eta duatloi txikia, lasterketa herrikoia eta lasterketa inklusi-boa egongo dira lehenengo. Goizeko probetan parte hartu gura duten denek tokian bertan egin ahal izango dute izen ematea.

Arratsaldean helduko da ikusminik handiena piztuko duen proba: txapelak jokoan izango dituen duatloia, banakako eta bikoteko modalitateetan. Distantziak honako hauek izango dira: 3,5 kilometro korrika, 10 kilometro bizikletan, eta beste 3 kilometro korrika. Gizonetan irabazteko hautagai nagusi bi daude: Paul Bereziartua duran-



MugarraTTko eta Durangoko udaleko ordezkariak, probako kartelagaz. MUGARRATT

garra eta Josu Urrestarazu. Joan zen asteburuan Urrestarazuk Asteasuko mendi duatloia irabazi zuen, Bereziartua bigarren zela. Durangarrak aurkari gogorra izango du aurrez aurre, baina etxeko duatloia kuttuna

du: orain arteko bi aldiak berak irabazi ditu.

Lehenengo edizio bietan 100 lagunetik gora batu ziren proba lehiakorrean. Aurten 130 parte hartzaile inguru batuko ditu, inoiz baino gehiago.



Pilotariak eta Durangoko Udaleko ordezkariak txapelketako aurkezpenean.

Durangon hasiko da Jai Alai League denboraldi berria

ZESTA-PUNTA Urriaren 6an finalerdiak jokatu dira Ezkurdi Jai Alai frontoian, eta urriaren 13an finala

J.D. DURANGO

Zesta-puntako Jai Alai Leaguearen denboraldi berria Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan hasiko da. Durangoko Master Serie-sean lau bikote ibiliko dira lehia. Eurretari bat, Xabi Barandika gernikarra, Jai Alai Leagueko gaur egungo txapel-duna da.

Finalerdiak urriaren 6an jokatuko dira, 19:30ean. Barandikak Unai Lekerikabeaskoa herriki-deagaz jokatuko du Durangon, eta Erkiaga eta Del Río izango dituzte aurkari. Beste finalerdian Urreistik eta Zabalak Olharanen

eta Ibarluzearen aurka neurtuko dute indarra.

Finala San Fausto egunean jokatu da, urriaren 13an, 19:30ean. Atariko partiduan emakumeen partidu bat izango da. Euskotren Winters Serie-seko txapeldunak diren Helena Barrenetxea durangarrak eta Arai Lejardik Jai Alai Leagueko txapeldunak diren Elaia Gogenolaren eta Maia Goikoetxearen kontra jokatuko dute.

Egun bietarako bonuak zein jardunaldi bakarrerako sarrerak www.eramanjaialai.com webgunean eskuratu daitezke.



JOKALDIA

ALFONTSO ARROIO MONASTERIO KIROL KAZETARIA

Jostaria

Hamazazpi urte zituela txundituta utzi zuen talde profesional bateko arduradun bat. Harribitxiak aurkitzea zen bere egitekoa. Ziklistaren herrialdeko lasterketa batera joan eta protagonista lider zela, bertatik bertara ikusita-koak zirrara sortu zion. Horiz jantzita, helmugatik hogeita zortzi kilometrora faboritoen multzotik hanka egin eta bakar bakarrik iritsi zen amaierara etapa irabazita. Ziklista handi baten lehen zantzu izan zitekeela iruditu zitzaion arduradun horri. Urtebetera, jadanik profesionaletan zebilela, Kroaziako Ischia Trophy lasterketara joan zen harribitxiaren bilatzaile hori, han aritzeko baitzen gure protagonista. Lehen sasoiaren elite mailan, eta inguruan eskarmentu handiko ziklistak zituen. Baina kontrakoa dirudien arren, talentu berrien ikuskatzaile hori beste ziklista batzuk ikustera joan zen: Politt eta Kamna, besteak beste. Aitzitik, urtebete atzerago txundituta utzi zuen mutilak ahoa bete hortz utzi zuen. Ziklista zailduen aurrean eta azken erripa gogorrean, bakar-ba-

"HARRIBITXIAK AURKITZEA ZEN BERE ZEREGINA. BERTATIK BERTARA IKUSITAKOAK ZIRRARA SORTU ZION"

"EZ ZUEN IRABAZI. HIRUGARREN GERATU ZEN. EGINDAKOAREKIN MAITEMINDU ZEN IKUSKATZAILEA"

karrik aurrera egitea erabaki zuen, hartara amaitzeko kilometroa falta zela. Ausardia erakutsi baina ez zuen saririk jaso, hanka pedaletik atera zitzaiolako. Ez zuen etapa irabazi, hirugarren amaitu zuen. Egindakoarekin maitemindu zen ikuskatzailea. Aitaren batean Bakala Academy egoitzara joateko gonbita egin zion bertan azterketa batzuk egiteko. Quick-Step taldearen gunea zen hori. Ikuskatzailea, berriz, euskal herritar bat: Josean Fernandez "Matxin". Protagonista nagusia Gent-Wevelgem klasikoa egitera zihoala baliatuta egingo zituzten proba horiek. Baina kontuak kontu, orduko Lampre taldeak (gerora UAE izango zena) horren berri izan eta guztia geldiarazi zuen ziklistari hurrengo urterako sekulako kontratua eskainita. Ez zen damutu, historia egiten ari den ziklista fitxatu zuelako. Matxin eta Quick-Step harribitxi barik gelditu ziren baina euskal herritarrek handik gutxira berarekin bat egin zuen UAE taldean. Gazte mailan bezala dihardu bizikleta gainean: jostari.

GUARDIAKO BOTIKAK

URRIAK 3, BARIKUA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
URRIAK 4, ZAPATUA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 5, DOMEKA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 6, ASTELEHENA
09:00-09:00
Navarro, Artekaleara 6 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 7, MARTITZENA
09:00-09:00
Ettxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 8, EGUAZTENA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - DurangoSanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 9, EGUNA
09:00-09:00
De Diego, Intxaurrondo 22. - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK




Mikel
Mikel 'karrozero ta mekanikue'. Santutxu plantak eittenzuz, baia kasu hontan ez dozu iñobez engañetan deabruorrek. Ia noz erakusten dozuzen zure mekaniko dohain eder horrek, Patrol zahar bat ekarri ta barriztu bat emonda, holan BPP konpletue izengo zara ta. A! Ta gogoratu adin txarra dekozule, 33. Eutsi goiari, lagun!



Garazi
Irailien **Garazik** 10 urte ein ebazan. Zorionak etxekuen partez!

EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA




DURANGALDEA

Zapatua, 00



Domeka, 00



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
📍 gozatugozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

1#
100 ZALDI TRÖSTAN
Ainhoa Urien
Elkar

2#
PLEIBAK
Miren Amuriza
Susa

3#
MAITASUN KAPITALAK
Maialen Jaio
Elkar

4#
HETERO
Lixue Alorri
Susa

#SAL DUE NAK

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



11.000 €

SAN INAZIO AUKERA. Garajea.



C.E.E= E 275.000 €

ERRETENTXU 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garaje itxia aukeran.



C.E.E= E 128.000 €

ZALDIBAR 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea-mendebaldea)



C.E.E= F 470.000 €

BASERRIA BERRIZTATUA. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa su bajuarekin. 4 hektareako lursaila.



C.E.E. = F 195.000 €

DURANGO 5 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kapora ematen du. Bizitzen sartzeko moduan.



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO
Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**
Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.
Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.
Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.
Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO
Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. Igogailua. Gasa.
Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILEAK SALGAI
Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.
BASERRIAK ETA IXALEIAK SALGAI
Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**
Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.
Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.
Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIURUAN ABADINO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
DURANGO
Ermodo klean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIURUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ
Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C. E. E.: BIDEAN. 269.000 €

MATIENA Trañabarren: 94,8m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela (horietako 2k horma-armairuak dituzte) komuna, bainugela eta despentsa handia leihoarekin. Toldo automatikodun balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea-mendebaldea) Argitsua. Ikuspegi ederrak. 14,25 m2-ko ganbara. Apartaeko garaje-partzela erosteko aukerarekin. **+18.250 €**



C. E. E.: G. 187.000 €

BERRIZ Agirre Lehendakariaen pasealekua: 85m2. Halla horma-armairuarekin, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua dutexarekin eta leihoarekin. Balkoia. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.



C.E.E: G. 182.000 €

DURANGO Antso Estegiz: 42,50 m2. BERRIZTATUA. Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna dutexarekin. Egoera ezin hobean. Beheko solairuan etxe erdiak kanpora ematen du, iparralde. Zerbitzuguneak eta zonalde berdez inguratuta. 6 m2-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa.



C. E. E.: BIDEAN. 335.000 €

DURANGO Tronperri: 89,43 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (Hego-ekialdea) Argitsua. Leku onean kokatua. Zerbitzugunez inguratuta. Garaje itxia eta 6,8 m2-ko ganbara.



C. E. E.: E. 150.000 €

IURRETA Amilburu Musikarien kalea: 66,8m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea-mendebaldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. Eraikin gasduna, etxebizitzaren leihorainoko instalazioarekin.



Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

DURANGO
Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 € / E.E.Z=F**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

ABADINO
Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €.**
Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**
Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO
Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ
Murgoitio auzoa: Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeko baserria lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GARAI
Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA
Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

GARAJEAK SALGAI/ALOKATZEKO DURANGON SALGAI
Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**
Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**
Kurutziaga: Garaje itxia eta aukera ezberdinak.
Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGO ALOKAGAI
Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**
Alluitz: Garaje itxia. **75 € / hilean.**
Antso Eztegiz: **45 € / hilean.** Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO DURANGON SALGAI
Landako etorbidea: 50 m2-ko lokala. **600 € /hil. / E.E.Z=E**
Komentu kalea: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E.Z=F**
IURRETAN SALGAI
Aliendalde: 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**
Padureta: 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €** Alokagai: **1.680 € /hilean.**

Beste aukera batzuk bulegoan galdetu



LAU-HORTZA

KAROL SUAREZ
BORGES

Legeak ohitura ito

Plateruen plazan txosnak muntatuta daude eta ikustean zirrara sentitu dut; irribarrea atera zait. Baina zirrarekin batera frustrazioa ere bai, herri honetan eskutik baitoaz askotan.

Herriko jaiak gutxinaka triskatzen dabiltzan sentsazioa daukat: Pantxike ez dut balkoian gehiago ikusi, txosnen ordutegiarekin atzera azkenean, eta mozorro eguneko karrozei egokitu zaie orain. Zergatik herriari oztopoak jarri bata bestearen atzetik? Zergatik desagerrarazi herri egiten gaituena?

Suminduta eta nekoso bizi den durangarraren egutegian San Faustoek 365 egun dituzte; disfrutatuko nituzke baina nirean sei baino ez dira. Potrozorri ugari erabakiak hartzen murrizketa eta debekuek atzera bueltatu ezinezko puntura garamatzaten bitartean. Tradizioak asasinatzen dira horrela; apurka, zarata askorik atera gabe. Jaiaren osagai bat ito, herritarren arnasa estutuz.

Ordena hierarkikoa du zuzenbideak: legea, usadio eta ohiturak eta, printzipio orokorrak. Ohiturari legea sortzen bazaio zapaldua edo ordezkaturia izango da nahitaez, desagertu arte. Durangon ikusten da hori, batez ere jaietan: ez dago tarterik inprobisatzeko, ezta jaien arnasa askatzeko ere. Berezkotasuna falta da; horretan datza festen benetako esentzia, eta alaitasuna berriro pizteko beharra.

AKUILUA



"Mendizalea izanik, Nepal asko gustatu zait"

IÑAKI ESTEBAN GARITAONANDIA KAMERARIA

Kamerari legez 'VXM, Vascos por el mundo' eta 'Callejeros' saioetan lan egin du. Orain, Euskal Herrian dihardu, 'Euskadi Quédate' telebista programan

A. Basauri DURANGO

Hainbat urtean Madrilen (Espainia) lan egin ondoren, Euskal Herrian lan egiteko aukera duelako pozik dago Iñaki Esteban (Durango, 1994). Gasteizen ikus-entzunezko Goi Mailako ikasketak egin eta gero, argazki-zuzendaritza masterra egin zuen Madrilen.

Orain sei urte kirol jarduerak grabatzen hasi zinen kamerari lanetan. San Mamesen, Anoetan, Buesa Arenan... publikoa grabatzen

lan egiten nuen, zelai edo kantxako pantaila handietan erakusteko. Baina pandemia sasoian harmailak hustu egin ziren.

Geroago sortu zen VXM, Vascos por el mundo saioan aritzeko aukera. Zeintzuk herrialde bisitatu dituzu?

Europako hainbat lekutan grabatu dugu: Norvegiar, Finlandiar, Estoniar, Berlinen (Alemania)... Pekinera (Txina), Tokiora (Japonia) eta Nepalera ere joan naiz, eta AEBetako hainbat lekutara: Idahora, Te-

xasera, Route 66 ibilbidera... **Zorioneko lana ematen du.**

Ordu asko ematen genuen grabatzen, eta bidaiak luze egiten ziren batzuetan. Baina aukera polita izan da bidaiatzeko. Gainera, oso gogoko dut bidaiatzea. Orain urte batzuk horrelako saio batean lan egingo nuela esanez gero ez nuen sinistuko. Etxeko telebistan ikusterakoan, askotan pentsatu nuen: "Egundokoa litzateke horrelako programa batean lan egitea".

Eta lortu zenuen!

Ametsetako lana izan da. Herrialdearen arabera, zazpi eguneko grabazio lasaia edo zorarena izan zitekeen. Eguraldiak asko eragiten zigun. Telebistarako grabazioek ez dute glamour handirik, teknikarion artean behintzat (barrez). Lan gogorra da, baina oso polita. Orain, ea proiektu berriak datozen.

Gogoan duzun bidai bat?

Bakoitzak bere xarma du. Norvegia oso ederra da, baina oso garestia. Bestalde, mendizalea izanik Nepal asko gustatu zait. Everest ikusteko aukera izan nuen, eguraldi ederragaz.

Callejeros saiorako grabazioak beste era batekoak izan dira.

Bai, oso istorio gogorak ezagutu ditut. Prostituzioari buruzko erreportaje batean, emakumeen trafiko sareetako biktimak ezagutu nituen, adibidez. Beste batean bular operazio bat grabatu nuen, pertsonen zoriona lortzeko egindakoak biltzen dituen saiorako. Ez dut inoiz beldurrik izan, baina tentsio uneak bizi izan ditut.

Zein formatutan zaude erosoago? Biak uztartzen dituen formatuan lan egin gura nuke.

Argazkizalea ere bazara. Argazki on baterako gakoa?

Une oro laukiratzea buruan izatea. Askotan lortu ez arren, beste batean harrapatu ezingo dudanez edo irudiari argazkia ateratzen ahalegintzen naiz.

'CALLEJEROS' SAIORAKO GRABAZIOETAN ISTORIO GOGORRAK EZAGUTU DITUT"

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Westrock